gripearearen pandemian izan ziren gaixoen eta heriotzen kopurua eta garai hartan instituzioek hartu zituzten neurrien datuak biltzeko asmoz. Erreenteriaren biztanleriaren zentsuari dagokionez, 1910. urtean 5.527 biztanle zeuden, eta 1920. urtean, 6.966 biztanle. Emaizta horiek 1918. urtera eramanda, 6.678 biztanle izango zituela kalkula dezakegu.

Datuen analisi estatistikoa egiteko, heriotza-tasa ehuneko eta milakoetan adieraziko dut, eta zenbaki absolutuak taula eta grafikoen bidez adieraziko ditut.


1918. urtean 181 pertsona hil ziren Erreenterian. Grafikoan adierazitako proportzioan hil ziren². Hildako horietatik guztietatik, datu ofizialen arabera, 15 gaixo zendu ziren Influenza Birusak eragindako gripe espainolaren ondorioz. Heriotzen datu hori oso bestelakoa da aurreko urteetako datuekin

1. ERKOREKA, A. *La Pandemia de Gripe Española en el País Vasco*. Leioa: Museo Vasco de Historia de la Medicina y de la Ciencia; 2006.

2. IZAGUIRRE, I. *Historia de la Medicina de la Villa Guipuzcoana de Rentería*. Errenteria; 1994.

alderatuta. Izan ere, 1915. eta 1917. urteen artean, batez beste, 111 pertsona zendu ziren; eta 1920 eta 1922 urteen bitartean, aldiz, 128³.

Bildu ditudan datuen arabera, herriko medikuak eta parrokoa irailaren 28an hasi ziren datuak biltzen, Gipuzkoako gobernadore zibilak alkateari bidalitako agindu bat dela eta⁴. Data horretako gaixo larrien artean, zenbait konplikazio izan ziren: bronkopneumonia, septizemiak, enteritisa...




Gobernadore Zibilaren aginduz, Udalak honako debekuak ezarri zituen herrian⁵:

1. Sagardo berria saltzeko debekua.
2. Miasmak era daitezkeen edozein eremuren garbiketa intentsiboa.
3. Frantziatik etorritako biztanleak intentsiboki aztertzea.

Hurrengo egunetan ere, irailaren 29an eta urriaren 4an, asteroko ferien debekua eta eskolen itxiera agindu zuen alkateak, gripea biztanle gehiagorengan hedatu ez zedin⁶. Bestalde, herriko enpresa guztiei gutun bana bidali zitzaizkien, neurri higieniko egokiak eskatzeko⁷.

Erreterian gripeak hildako lehen gaixoak irailaren 29an izan ziren, hilaren 29an, hain zuzen ere. Egun horretatik aurrera, gaixoen kopuruak gorantz egin zuen, urte bereko urriaren 2a arte. Orduz geroztik, beherantz joan zen gaixoen kopurua, azaroaren 23an epidemia desagertuz eman zen arte. Bestalde, esan beharra dago epidemiaren datuen bigarren egunetik azaroaren 14a arte, azken hildakoa gertatu zen eguna, guztira 15 pertsona hil zirela gripeak eragindako konplikazioen ondorioz gehienbat, nahiz eta heriotzaren arrazoiak oso argiak utzi ez dizkiguten. Epidemia amaituzat eman bezain laster, udalak berehala altxatu zituen epidemiaren hasieran ezarri zituen debeku guztiak.

Datuak kontuan hartu ez ditudan arren, aipagarria da 1919. urtearen hasieran Erreterian beste gripe epidemia bat izan zela.



3. IZAGUIRRE, I. *Historia de la Medicina de la Villa Guipuzcoana de Rentería*. Erreteria; 1994.

4. ILLARRAMENDI, R. Carta. Erreteria; 1918.

5. ILLARRAMENDI, R. Comunicado. Erreteria; 1918.

6. ILLARRAMENDI, R. Comunicado. Erreteria; 1918.

7. ILLARRAMENDI, R. Carta. Erreteria; 1918.

Alkateak gobernadore zibilari egunero bidalitako datu ofizialak

DATA	GAIXOAK	LARRIAK	HILDAKOAK
1918/09/28	223	9	0
1918/09/29	237	10	2
1918/09/30	209	12	0
1918/10/01	287	10	1
1918/10/02	308	15	0
1918/10/03	271	12	1
1918/10/04	249	11	0
1918/10/05	228	14	1
1918/10/06	228	21	0
1918/10/07	203	20	2
1918/10/08	212	9	1
1918/10/09	186	21	0
1918/10/10	159	18	1
1918/10/11	147	15	1
1918/10/12	143	12	1
1918/10/13	142	12	0
1918/10/14	120	11	0
1918/10/15	125	14	0
1918/10/16	119	9	1
1918/10/17	127	10	0
1918/10/18	120	10	0
1918/10/19	109	8	0
1918/10/20	101	8	0
1918/10/21	87	7	0
1918/10/22	84	7	0
1918/10/23	75	6	0
1918/10/24	64	3	0
1918/10/25	64	4	0
1918/10/26	63	3	0
1918/10/27	64	5	0

DATA	GAIXOAK	LARRIAK	HILDAKOAK
1918/10/28	63	6	1
1918/10/29	59	6	0
1918/10/30	50	6	0
1918/10/31	40	5	0
1918/11/01	33	5	0
1918/11/02	30	5	0
1918/11/03	29	5	0
1918/11/04	26	5	0
1918/11/05	22	5	0
1918/11/06	18	4	0
1918/11/07	15	4	0
1918/11/08	14	4	0
1918/11/09	12	3	1
1918/11/10	9	2	0
1918/11/11	9	3	0
1918/11/12	11	4	0
1918/11/13	10	4	0
1918/11/14	8	2	1
1918/11/15	3	0	0
1918/11/16	3	0	0
1918/11/17	3	0	0
1918/11/18	3	1	0
1918/11/19	3	1	0
1918/11/20	2	1	0
1918/11/21	2	1	0
1918/11/22	1	1	0
1918/11/23	0	0	0
GUZTIRA			15

Ikerketa honen hasieran esan dudan bezala, Artxibo Historikotik lortutako datu ofizialak ez dira oso fidagarriak. Izan ere, baliteke Udalak benetako datuak faltsutzea herritarren artean lasaitasuna eta bakea mantendu ahal izateko.



Hortaz, aurreko eta ondorengo urteen heriotza kopuruen datuetatik abiatuta, egokiagoa izan daitekeen heriotza-tasa bat kalkulatu dut. 1919. urtean berriz ere beste agerraldi bat izan zenez gero, erabaki dut urte horretako datuak isolatzea eta batez bestekoetan kontuan ez izatea.

Kontuan izanda 1915. eta 1917. urteetan 106, 102 eta 126 pertsona zendu zirela hurrenez hurren, batez beste esan dezakegu 111 pertsona hil zirela urte tarte horretan⁸. Hori dela eta, 1918. urtean, heriotzen kopurua %0,7 handitu zen.

Beraz, 70 pertsona gehiago hil zirenez, gutxi gorabehera kalkulatu dut benetako heriotza-tasa %10,5 izan zela 1918an, "espainiar" gripearri dagokionez.

Lortutako heriotza-tasa berri hau gehiago gerturatzen da Euskal Herrian izandako heriotza tasa orokorrari, %12, alegia⁹.

Bestalde, lehenago esan dudan bezala, gaixo gehienak gripeak eragin zituen konplikazioen ondorioz hil ziren, gehienbat arnas aparatuari eragiten dioten bronko-pneumoniak, septizemiak eta enteritisak jota. Hori ondorioztatzeke, aurreko datuen analisietara jo behar dugu eta ikus dezakegu urte horietan (1918-1919) pertsona gehiago zendu zirela arnas aparatuen gaitzen ondorioz, gaitz infekziosoen ondorioz baino.



8. IZAGUIRRE, I. *Historia de la Medicina de la Villa Guipuzcoana de Rentería*. Errenteria; 1994.

9. ERKOREKA, A. *La Pandemia de Gripe Española en el País Vasco*. Leioa: Museo Vasco de Historia de la Medicina y de la Ciencia; 2006.

Urteetan zeharreko heriotza kopurua

	1915	1916	1917	1918	1919	1920	1921	1922
Infekzioak	23	33	36	38	28	31	28	27
Neoplasiak	5	3	5	4	5	2	3	7
Metabolismo Gaixotasunak	0	0	0	1	2	3	0	1
Odoleko G.	2	0	0	1	1	0	3	3
Trastorno mentalak	2	0	0	1	1	0	0	1
Nerbio Sistemako G.	5	6	12	7	11	13	10	5
Zirkulazio Aparatuko G.	16	16	23	26	18	20	23	20
Arnas Aparatuko G.	28	20	24	69	48	34	32	36
Digestio Aparatuko G.	1	2	3	5	9	1	1	0
G. Genito-urinarioak	3	4	3	2	2	0	3	8
Haurdinaldi Konplikazioak	1	1	0	0	0	1	2	0
Azaleko G.	0	0	0	0	0	0	2	0
Ehun Konektiboko G.	0	0	0	1	0	0	0	0
Anomalia Kongenitoak	1	0	4	3	0	1	1	0
Garai Perinataleko G.	2	1	2	2	6	1	1	5
Sintomak	14	13	14	14	18	11	11	23
Lesioak	0	2	0	7	4	1	7	0
Guztira	106	102	126	181	152	120	127	136

Eskerrak Errenteriako Udal Artxibo Historikoko eta Udal Liburutegiko langileei, eta Begoña Madarieta eta Anton Erkorekari.

Jose Elizondoren *Dollorra* drama, Errenteriako euskal antzerkigintzaren historian klasikoa

Maite Ruiz de Azua

Errenteriako antzerkigintzaren nondik-norakoa dagoeneko zenbait artikuluren gaia izan da *Oarso* aldizkarian, Xabier Olaskoagaren "Antzerkia Errenterian" eta Martin Tejeriaren "Gure arteko euskal antzerkia" aipatu beharko genituzke, beste erreferentzia batzuen artean. Olaskoagak XVII. mendean hasita eta ia gaur egun arte antzerki taldeen izaera, ibilbide eta jardueren berri ematen digu. Horrez gain, antzezle, antzezlan, egile eta emanaldien aipamenak ere egiten ditu idatzian.

Gure herriko antzerkiarekiko zaletasuna oso nabaria izan da betidanik, bertako antzerki taldeei esker emankizunak ugariak izan direlako, eta, ikusleen aldetik ere, herriak babesa eta zaletasuna erakutsi dituelako. Denboran zehar, nahiz eta taldeak ugariak izan, eta joera desberdinak azaldu, euskal antzerkiari dagokionez badago antzeztutako lan bat errepikatzen dena: Jose Elizondoren *Dollorra*, hain zuzen ere. 1915eko antzerki lehiaketa batean saritua izan zen lan honek hurrengo urteetan antzerki taldeen eta ikusleen artean arrakasta handia lortu zuen.

Jose Elizondok, tolosarra jaiotzez, Donostiako Euskal Antzerki Berrian parte hartu zuen. XX. mendearen hasieran Martzelino Soroak *Euskaldun Fedea* izeneko sozietatea sortu zuen, eta Donostiako antzerki taldeak euskara sustatzeko antzerki bizitza animatzeaz gain, *Euskaldun Fedea* aktore eta egileen harrobi bihurtu zen. Idazle taldeko partaide Jose Elizondo dugu. Egile haiek gehien landu zuten generoa komedia izan zen, honen barruan genero txikia eta ohiturazko saineteak; ondorioz, lanen errepertorio zabalaren jabe izan ziren.

Garai hartako ikusleek komedia gustuko zuten batez ere, Elizondok genero honetako testu batzuk idatzi zituen: *Alkate ona*, *Idartzako jauna*, *Amets gozuak...*, Donostiako Antzoki Zaharrean, San Tomas egunean, Euskal Jailetan, zein herriz herri antzeztuak izan zirenak. 1915ean *Euskal Iztundea* eskola zuzentzeko aurkeztu zen, baina azkeneko momentuan atzera egin zuen eta katedra Toribio Altagarentzat izan zen. *Euskal Iztundea* sustatutako lanak Donostia eta Gipuzkoa osora hedatu zituen.




Jose Elizondo.

1915. urtean ere Jose Elizondok Donostiako Udalaren sarirako bi antzezlan bidali zituen: lehenengoa komedia bat, *Atzertokiya*, epaileek nabarmendu zuten ondokoa: "diálogo animado y chistes saladísimos", baina saritutako lana hiru ekitaldiko drama izan zen, *Dollorra*, "obra escrita con un diálogo animado y bien entendido y en vascuence puro y correcto". Barriola, Loyarte, Alzaga idazleak izan ziren epaileak, baita Juan Ignacio Uranga errenteriarra ere. Urangak berak *Dollorra* dramaren lehen emanaldiaren kritika argitaratu zuen *Euskal Erria* aldizkarian: "Arratseko bederatziyeta eman zitzaiyon bigarren ekiñ aldiyari asiyera, arrabetariyen

oskintzarekin, ta bereala alcha zuten ezkutapiya, Jose Elizondo'ri aurtengo gai neurketan saritu zayon abalizket Dollorra ikusdariyen ezagungarritzat jarri zediñ; ta nik esanaren zai egon bearrrik ez dago zenbaterañoiko gai aundiyak dauzkan egintza guztiz eder onek, zergatik antzokiratu ziran guztiyen abotik, etzan besterik aditzen:

¡Ori da lan ederra gaur, gaur bezela, ipiñi dutena gure begiyan aurrean ! (...)ta Elizondo egon arren (zerbait gaizki egin bazukien bezela) baztar batian kuskurturik, iñork ikusi etzezan, alcha bear izan zuben zeguen lekutik ikusdariyen aurrera ager zediñ, langille gazte oyekin bat chalo soñuak adi zitza. Uste nuben ikusdariyak eskurik gabe geldituko zirala arrats artan, ta etzan guchi-yagotako ere”.



Jose Elizondoren bi antzerki lan.

Errenteriako antzerkigintzari dagokionez, Batzokiko taldea 1920 aldera, Teodoro Goñiren zuzendaritzapean, punta-puntako antzerki taldea bihurtu zen. Talde honek arrakasta handia izan zuen bi sariketatan, Donostian eta Gernikan. Diputazioak Novedades antzokian sariketa bat antolatu zuen 1921ean, txapelketa hartara hiru talde aurkeztu ziren: Pasai Donibaneakoak Elizondoren *Dollorrarekin*, Debakoak Elizegiren *Garbiñerekin* eta Errenteriakoak Garitaonaindiaren *Iziartxorekin*.; azken hauek saria irabazi zuten, baina Martin Tejeriak bere artikuluan dioenez, sanjuandarrek ere lan bikaina egin zuten.

Hurrengo urtean Errenteriakoek Gernikara *Dollorra* lana eraman zuten, Eusko Ikaskuntzak eskainitako saria eskuratu nahian, Pasaiaiko eta Bergarako taldeak lehiakide izan zituzten, eta Errenteriako Batzokiko taldea bertan ere suertatu zen garaile. Aurrerago, Felipe Lizasoren zuzendaritzapean, 1936 arte lanean jarraitu zuen talde honek. Egindako antzerkien artean *Dollorra* azaltzen zaigu berriro, baita Jose Elizondoren *Idartzako jauna* ere.



Donostiako Antzoki Zaharrean *Dollorra* dramaren irudia.

1958an Ereintza Elkartearen sorrera aipatu behar da, eta elkarte honen barruan antzerki talde bat ere aurki dezakegu, hasiera batean gaztelaniazko lanak antzezten zituena, baina 1960an Andoni Kortak euskaraz antzezten hasi zen talde bat sortu zuen. Zenbait urtetan bi taldeek lanean jarraitu zuten. Euskal Antzerki taldeak jendaurreko lehenengo emankizuna 1960ko Madalenetan eskaini zuen Batzokiko antzokian, bi lan hauekin: Toribio Altzagaren *Bost Urtian* komedia eta Jose Elizondoren *Dollorra* drama, azken hau Koldo Mitxelenaoren omenez antzeztua.

Horrela, Jose Elizondoren antzezlanak, XX. mende hasierako euskal egile guztienak bezala, behin eta berriz, eta arrakasta handiz, eszenaratu ziren, Gerra Zibilarekin etenaldia iritsi arte. Beren presentzia, ordea, ez zen orduan bukatu: berrogeita hamargarren hamarkadan zehar eta hurrengo urteetan ere euskarazko antzerkiaren berpiztearekin berreskuratu ziren, eta gaurko euskal antzerkiaren oinarria bilakatu zen.


Entre puntadas

A mi madre, en recuerdo de su abuelo José Elizondo

En el barrio de Gros, en un local al par del portal número 6 de la calle Aguirre Miramón, tenía su taller el sastre José Elizondo, hombre de porte elegante, impecable maniquí de sus propios trajes, los cuales confeccionaba en los años en que Europa se descomponía en estrategia de trincheras. Gran parte de su clientela la constituían refinados refugiados extranjeros que, a salvo del gas mostaza, comentaban en San Sebastián los partes de guerra en las tertulias de los cafés, protegidos por el humo de los cigarros... Elizondo tomó el oficio de sastre por necesidad: la viudez de la madre y tres hermanos más chicos le obligaron a entrar de aprendiz y a dejar la escuela cuando hubiera querido saciar su imparable curiosidad por saber más. Quizás por eso nunca dejó los libros de lado, entre puntadas se las arreglaba para seguir estudiando por su cuenta, y continuó con sus lecturas de Historia, Filosofía y los clásicos. Se las arregló incluso para aprender francés en un método prestado, pequeños conocimientos que practicaba con los clientes belgas y franceses. Saludos y fórmulas de cortesía breves para empezar, luego, el maestro del taller ya lo tuvo de intérprete, y al cabo llegó al diálogo sobre temas variados; así alcanzó un meritorio conocimiento del idioma. Poco imaginaba que años más tarde, por causa de otra guerra, el refugiado sería él en una ciudad francesa.

Elizondo fue un buen sastre, tenía mano. Lo que muchos desconocían era que entre puntada y puntada hilaba además palabras; que los versos se le escapaban por las costuras y las rimas iban buscando acomodo en los ojales de las camisas; que deshilvanaba escenas cotidianas de vecindario, picaresca de criados y soberbia de señores, de cada hijo de esta sociedad buscaba el retrato, sus costumbres, las tramposas jugadas y las acciones honestas, miseria y dignidad mano a mano, mezclaba hombres y mujeres conocidos con los de paso. Cosía así sobre la tela cuadros cómicos, también drama en algún encargo complicado; él los introducía en sus tejidos, en el dobladillo que hilvanaba, con aguja de entrada y salida en las acotaciones, y diálogos bien rematados antes de entregar los trabajos.

José Elizondo fue autor de teatro, también tenía mano. Reconocía sus trajes en los palcos del Teatro Principal siempre que acudía, entre puntadas, al estreno o a la representación de alguna de sus obras.



Cafeteras Omega: kafe zaporeko historia

Arantxa Urbe Irazusta



Aicardo Urbe Iriartek Buenos Aires-en (Argentina) zuen lantegia, *Cafeteras Omega*ko lehen fabrika. Urbe familiaren fondoa.

XX. mendearen hasieran, Bartzelonatik Argentinara joateko hilabete behar zen itsasontziz. Rafael eta Aicardo Urbe anaiek ederki ezagutzen zuten bidaia hura. Rafael Urbe Iriarte 1878ko otsailaren 1ean jaio zen Ziraukin (Nafarroa, Lizarrako merindadea), ordura arteko urbetar guztiak bezala. Anai-arreben artean zaharrena izan zen.

Txikitatik Iruñan ibili zen eskolan, Aicardorekin batera. Biek ala biek ez zuten Ziraukin zituzten lur eta mahastiekiko atxikimendu handirik erakutsi, eta horregatik, gaztetatik Ziraukiko lurrak utzi eta beste bide batzuk jorratzea erabaki zuten.

Rafael Iruñako notarioaren laguntzailea izan zen urte batzuetan. Ondoren, Aicardorekin batera, Amerika aldera joatea erabaki zuen, eta Buenos Aireseko (Argentina) "Linage y Fernandez" oihal eta ehun lantegian hasi ziren lanean merkataritza-agente gisa. Zenbait urtez joan-etorrian ibili ziren.

Rafael Josefa Irigoyen Gonzalez de Chavarriekin ezkondu zen Zarautzen 1904ko irailaren 11n. Argentinarako bidaia haietako batean jaio zen


1905eko apirilaren 11n Bartzelonan Francisco Urbe Irigoyen, haien seme bakarra.

Argentinan zirela, 1913ko Eguberrietan, Espainiako loteria nazionalaren sari nagusia egokitu zitzaientzen, 18.073 zenbakiduna, hain zuzen.

Aicardo Urberen koinatuak, Merino ingeniari jaunak, loteriaren saria egokitzen ez zitzaiolako aspertuta, urtetan erosi zuen zenbakia Aicardori saltzea erabaki zuen. Hark, ehundegiko langileen artean banatu zuen. Eta nola diren gauzak, zortea deitu zuten lehen aldian egokitu zitzaientzen sari nagusia. Aicardo Urbek hiru dezimo zituen, haien truke garai hartako milioi bat eta zortziehun mila pezeta egokitu zitzaizkion. Rafaeli, berriz, dezimo baten erdia izaki, hirurehun mila pezeta egokitu zitzaizkion.



Ezkerretara Rafael Urbe Iriarte eta eskuinean haren seme Francisco Urbe Irigoyen, *Cafeteras Omega*ko nagusiak. Urbe familiaren fondoa.



Omega kafeteren lehen modeloak biribilak ziren. Argazkikoa gorputz batekoa da. Urbe familiaren fondoa.

Munduaren erdia Lehen Mundu Gerran murgiltzera zihoala, urbetarrei diru puska etorri zitzairen eskuetara.

Argentina abiapuntu edo helmuga zuen bidaia haietako batean ernaldtu zen *Cafeteras Omega* proiektua. Ozeanoaren erdian hitz egin omen ziren Urbe anaiei ingeniari italiar batek kafeteren gainean. Ordura arte, kafea egiteko eltzea erabiltzen zen, eta kafetera espresak iraultza handia izan ziren. Kafeteren txanparen arrimuan, hiriburuetan batik bat, ugaritzen hasi ziren hitz-aspertue-tarako jendea biltzeko leku egokia bilakatu ziren kafe-etxeak. Batak bestea lagundu zuen, kafetera espresen hobekuntzak kafe-etxeen irekiera, eta kafe-etxeen irekierak kafetera espresen negozioa.

Rafael eta Aicardok eskuratu berri zuten dirua kafeterak egiteko industrian inbertitzea adostu zuten. Hala, Buenos Airesen sortu zuten *Cafeteras Omega*ko lehen fabrika.

Urte batzuk Argentinan egin ondoren, eta kafeteren merkatuan urrats berriak eman nahirik,

“ O M E G A ”

La primitiva y mejor Cafetera Express construída hasta la fecha

“ M I N E R V A ”

La Cafetera Express más barata y la de menor consumo

FABRICADAS EN RENTERIA

EN LOS

TALLERES OMEGA

AVENIDA DE PABLO IGLESIAS

TELEFONO 6206


Pídanse Catálogos y referencias

Navarra en Guipuzcoa aldizkariak 1933ko uztailaren 7an kale-ratu zuen 1. zenbakia, Urbetarren gisa Gipuzkoan bizi ziren nafarrek lagunduta. Bertakoa da *Omegako* iragarki hau. Urbe familiaren fondoa.

erabaki zuten Aicardok kafeteren negozioko ibilbi-dea Argentinan jarraituko zuela eta Rafaelek Euskal Herrian. Horretarako, Rafael Donostiara itzuli zen 1916an bere familiarekin eta kafeterak egiteko patente batekin.

Donostian, lehenengo, Gros auzoko Kolon kalean kokatu zen. Ondoren, Mirakontxara eraman zuten kafetera fabrika.

Kafeterak egiteko zuen patentearekin *Omega Rui* (Rafael Urbe Iriarte) izena jarri ziren kafeterak egi-ten hasi zen. Urtez urte, kafe-makinak hobetzen eta perfektzionatzen joan zen. Horrekin batera, lehen-dik aritua zen mundu komertzialean lan handia egin zuen, eta Donostian eta penintsulan zabaltzen hasiak ziren kafe-etxe dotoreenetan bere kafeterak jartzea lortu zuen. Era horretara, *Omega* kafeteren



Cafeteras Omega pabiloiak eta atzean OMEGAKO etxea. Kutxa Fototeka.

ospea zabaltzen hasi zen. Kontuan hartu behar da, era berean, joan den mendeko 20ko hamarkadan, Donostia Espainiar estatuko burgesiaren atseden eta aisialdirako jomuga nagusia zela eta horrek jende asko erakarri zuela bertara. Hori ere lagungarri gertatu zitzaion Urberi bere *Omega* kafeteren ospea eta negozioa zabaltzeko. Garai hartan, kafe-etxe berrien irekiera eta zaharberritzeen berri emateko iragarkietan aipatzen zuten kafe-etxe haietako kafeak *Omega* kafeteretan egiten zituztela, dotoretasun eta kalitate zigilu gisa.

Cafeteras Omega Donostiatik Oretetara


Rafael gizon ekintzailea, ausarta eta negozioetarako sen handia zuena izan omen zen. Hurrengo urteetan ere negozioa bide onean jartzea lortu zuen, eta zabalduz zihoanez, ekoizpena handituko zuen instalazio baten bila hasi eta Oretetan aurkitu zuen. Donostian zituen langile haietako asko ere lantegiaren arrimuan etorri ziren.

Urbek bere lantegi berria kokatzeko A. Brisac Ainé y C^a aterki lantegiaren instalazioak jo zituen

begiz. Garai hartan Frantziako mugako tren geltokiko hiribidean (Pablo Iglesias), baina denentzat ezagunagoa den "topoko maldan".

Udal hirigintza artxibategiko 1. liburuko 6. txostenean jasota dagoenez, Brisac Ainé eta C^a-k 1921ean eskatu zuten aterkiak, eguzkitakoak eta makilak egiteko helburua zuen lantegia eraikitzeko baimena. Ondoren eskatu zuten instalazioen zabaltze-baimena ere bertan dago. Lantegi horren berri eman zuen *Rentería* aldizkariak 1922an. Artean amaitu gabe zegoen, baina han irakur daitekeenez, "Los señores A. Brisac Ainé y C^a, con el mejor acuerdo, han elevado un edificio en lugares los más hermosos de Rentería, destinados a elaborar cuanto está relacionado con la paragüería. Los edificios son admirables, orgullo, industrialmente, de la hermosa villa". Testuak eraikuntzaren abantailak laudatuz jarraitzen du.

Rafael Urbek 1930eko urriaren 13an aterki lantegiaren etxebizitza, pabiloiak eta lur-sailak erosi zituen. Urbek *Cafeteras Omega* han kokatu zuen garaian, kale hartan, 1918an eraikitako Batzokia,



Omegako trokelaketa saila. Urbe familiaren fondoa.

eta 1924an Jenara Esnaolak eraikitako eskolak berterik ez zeuden.

Aterki lantegia erosi eta kafeteren ekoizpean jarraitu zuen. Orduan ekoizten zituen kafemakinek *Omega* (handiak), *Omega Delta* (txikiak) eta *Omega Minerva* izena zuten. Horiek 36ko gerratearen aurretik ekoizitakoak izan ziren. Ondoren, 1953-54an, *Omega 540* isurpenekoa; 1956an, *Omega 560* modelo txikia gorputz batekoa edo bikoa; *Omega 600* palankaduna; eta, azkena, *Omega 50 oro*, ur presioarekin lan egiten zuen makina automatikoa etorri ziren.

Egunez egun zabaltzen zihoan merkatuari erantzun ahal izateko hainbat zabaltze-lan egin behar izan zituzten *Cafeteras Omegako* pabiloietan. Udaleko artxibategian jasota dagoenez, lehena 1935ean egin zuten, hurrengoa 1942an eta, azkena, 1951n. Lehen lanak Rafaelek berak egin zituen, eta bi azkenak Francisco Urbe haren semeak,

aia erretiratu zenean hark jarraitu baitzuen kafeteren ekoizpenarekin.

Rafael Urbek, bistan da, intuizio handia izan zuen negozioetarako, baina baita bizitzako beste arlo batzuetarako ere. Eskarmentuan eta lanean zaildutakoa zen bera; jaso zuen prestakuntza akademikoa, baina, ez zen oso handia izan. Horregatik erabaki zuen bere seme Franciscok enpresan aritu aurretik berak izan ez zuen prestakuntza jaso behar zuela. Horretarako, lehenik Bilboko Deustuko Unibertsitateara bidali zuen ingeniartzat ikasketak egitera. Han garai hartako jende esanguratsua izan zuen ikaskide, ondorengo bere ibilbidean zerikusia izan zutenak, besteak beste, Jose Antonio Agirre lehendakaria. Liejako unibertsitatean (Belgika) amaitu zituen Deustun hasitako ikasketak.

Rafael Urbe 1916an familiarekin Argentinatik itzuli zenean, Donostian jarri zen bizitzen, Gipuzkoa plazan, hain zuzen. Oretako lantegia erosi zute-

nean, han etxebizitza bazegoen ere, ez ziren bizilekuz aldatu. Rafael egunero etortzen zen Donostiatik "tranbia txurian" *Cafeteras Omega* zuzentzera.

Francisco Urbe Irigoyen Juana Peña Iriartekin ezkondu zen Donostian 1932ko maiatzaren 31n. Juana Ategorrietako (Donostia) *Toki Alai* etxean bizi zen arren, Saladillon (Argentina) jaio zen 1906ko maiatzaren 16an. Haren gurasoak ere argentinarrak ziren, nahiz eta jatorri euskaldunekoak izan. Txikitan etorri zen Donostiara, 7 urterekin, amona Juana Elosegirekin. Barkuz etorri ziren, hilabete itsasoan pasata.

Franciscok eta Juanak bost seme-alaba izan zituzten: Rafa, Maria Luisa, Pako, Juani eta Maria Jesus. 36ko gerrateak behartuta denboralditxo baterako etorri ziren *Cafeteras Omegako* etxebizitzara, behin-behineko, baina behin-behinekotasuna 1964ra arte luzatu zen. Ondoren, Donostiara joan ziren bizitzera berriro, Gros auzoko Iparragirre kalera.

Omegako etxeak beheko solairuan bulegoak zituen, 1. eta 2. solairuan etxebizitza eta gainean, berriz, ganbara. Gerra ondorenean, Franciscok 2. solairuan bi etxebizitza atondu zituen gerran oso gazterik hil ziren lantegiko bi langileren alarguentzat. Haiek joan zirenean berriro urbetarren bizileku izan zen.

36ko gerrak eragin sakonak izan zituen baita *Cafeteras Omegan* ere. Gipuzkoako Lan Ordezkaritzak eskatuta Francisco Urbek 1937ko irailaren 25ean egin zuen txostenaren arabera, 1936ko lehen hiruhilabetekoan lantegian 43 gizon eta 8 adingabe ari ziren lanean. Gizonek 10, 45 pezetako soldata zuten, eta azkenek 3,75ekoa. Epe berean, hainbat motatako 105 makina zeuden eta haien balioa 268.988,25 pezetakoa zen. Urte horretako apiriletik lantegia ez zen normaltasunez aritu eta maiatzaren 13tik aurrera erabat gelditu zen grebaren ondorioz. Lantegia ez zen berriro lanean hasi harik eta Francoren indarrek Gipuzkoa hartu zuten arte.

Txosten berean aipatzen da 1937ko ekain, uztail eta abuztuan 9 gizon eta 2 adingabe ari zirela lanean. Lehenek 10,30 pezetako soldata zuten eta bigarrenek 3,12koa. Jarraitzen du aipatuz zer makina zituzten, zer lehengai eta nortzuk ziren hornitzaileak, langile atzerritarrik ez zutela eta abar.




Gipuzkoa begiragar'ia liburuan argitaratutako iragarkia. Irudia Jon Zabalo Ballarin, *Txiki*, marrazkilari ezagunarena da. Urbe familiaren fondoa.

Ohar bat ere atxiki zuen Franciscok: "los cinco tornos revólveres, un torno mecánico y una sierra para cortar metales fueron requisados por la Autoridad Militar para la fabricación de materiales de guerra y se encuentran actualmente fuera de estos Talleres repartidos en distintas fábricas de Zaragoza, San Sebastián y Pasajes".

Tornu horietako bat aurkitu zuen ustekabean *Omegako* langile batek. Bando errepublikarrekoa izaki, gerrako preso eraman zuten Zaragozako lantegi batera. Galdetu zioten ea zein zen bere lanbidea eta tornularia zela esan zienean, artean inork nola erabili asmatu ez zuen tornua erakutsi zioten, ea berak ba ote zekien erabiltzen. Pitler tornu errebolber bat zen, Txekian egina. "Nire tornua da-eta!" esan omen zuen hura ikusi zuenean, bere gisara OMEGAtik Zaragozako fabrikara indarrez eramana.

Ez zituzten makina hoberenak eraman, antza. Rafaellek agindu zion Damaso Salaberria langileari zuten tornurik hoberena eta beste zenbait makina berri piezaz pieza desmuntatzeko, piezak markatu eta koipe iraunkorrez olioztatuzko. Ondoren, topoko trenbidearen ondoan lurperatu zituzten, lantegiaren lursailetan. Gerra amaitu zenean gordelekutik atera eta martxan jarriko zituzten berriro.

Franciscoren emazte Juanak, bere aldetik, bere neurriak hartu zituen. Argentinarra izaki, Argentinako bandera ipini omen zuen etxeko balkoian gerra hasi zenean, gerrarekin zerikusirik ez zutela adierazteko bere modua izan zen.



Francisco Urbe Irigoyenek diseinatu eta *Omegan* egin zuen tren-maketa. *Omegako* gela oso bat hartzen zuen maketak: zubiak, urtegia, mendiak, trenbideak, lokomotoreak eta haien bagoiak... Urbe familiaren fondoan.

Rafaelek ez zuen armarik egin bere lantegian. Gerra ondoren, arazo ugari aurre egin behar izan zion, horniketakoak, esaterako, ez baitzizkioten kupoak ematen. Beste bat, nazioarteak Espainiari blokeoa jaso eta *Ciudad de Toledo* bukea itsasoratu zuenean gertatu zitzaion. Itsasontzi hura Espainiako estatuan eginiko produktuen itsas gaineko erakustokia zen, eta European eta Ameriketara ibili zen. *Omega* kafeterei debekatu egin zioten erakusketa horretan parte hartzea. Espainiar patentea zuen kafetera izaki, azkenean, onartu behar izan zuten, baina debeku bat ipini zioten: ez zen martxan ipiniko. *Omega* kafetera bat joan zen, beraz, itsasontzi hartan, mundu osoko ikusleentzat sekula kaferik egin ez zuen kafe-makina.

Trenak Kafetera artean

1938ko otsailean 21 langile zeuden Jose Luis Insausti Urigoitiak 1996ko *Oarson Oreretako industria gogoratuz* lanean aipatzen duenez. Kafeteren ekoizpena txikia zen, ordea. Ondorioz, *Talleres Omega* sortu zuen Urbek metalgintzako hainbat

lan egiteko, enbutiziokoak eta abar. *Cafeteras Omegak* emeki jarraitu zuen bere bidea, Francisco egiten ari zen diseinu berri bati buruzko ikerketek, ordea, laster izan zuten emaitza, harrera oso ona izan baitzuen eta eskari handia erdietsi zuten.

Orduan hasi zen trenekin; *Omega* ezaguna egin zuen beste adar bat. Hori zen Franciscoren zaletasuna. Lantegiak miniaturazko makinak egiteko atal bat zuen, erlojutegiko makineria zuena, eta han eraiki zituzten Fidel Burugain eta Jesus Alverok Santa Fe izeneko lokomotoreak eskalan, bere bagoiak, errailak, zubiak, tunelak, ibaiak, barrerazainen etxeak eta abar zituen maketa. Diseinua Francisco Urberena zen. Lantegiko gela berezi bat zen hura, maketa handi harekin. Leku askotatik etortzen zen jendea hura ikustera, haietako bat izan zen gerora Espainiako errege izan zen Juan Carlos. Ikusgarria omen zen tren haiek martxan ikustea, ur-jauziak, bagoiak argizatzen tunelera sartzen zirenean, dena automatikoa zen, baita trenen artean gorde behar zuten distantzia ere. Haren ondoan trenak egiteko tailerra zegoen, beste langileek RENFE deitzen zutena.

Donostiako udaletxeko azpialdean egon zen ikusgai maketa. Hainbestekoa izan zen arlo honetan Franciscok eskuratu zuen ospea, Talgo trena bidetik ateratzen zenean Francisco eta bere "Renfeko" bi langileak joaten zirela maiz arazoa konpontzera. Askotan gertatzen zen hori, Ipar Amerikako neurrietara egokituta zegoenez, Espainiar estatuko burdinbideetan zailtasunak izaten baitzituen.

Omegak trenekin, txikiekin eta handiekin, izan zuen harreman estuaren adibide da Wagons Lits konpainiaren luxuzko tren guztietan *Omega* kafetera bat egotea.

50eko hamarkadan amaitu ziren lan horiek. Izan ere, Franciscok langileei eskatu zien kafeteretan jardutea buru-belarri. Ondorioz, lokomotoren tailer txikia desagertu egin zen.

Kafeteren ekoizpenean erabiltzen ziren materialak punta-puntakoak ziren, eta kafe-makinetan ezarri ziren elementu berriei teknika berriak aplikatu zitzaizkien. Francisco Urbe kafeteren funtzionamendua hobetzeaz eta kafeterak garai berrietara egokitzeaz arduratu zen.

Francisco oso gizon argia izan zen eta kafeterak fabrikatzeko erabiltzen ziren tekniketan berehalakia iaiotu zen. Baina ezagutu zutenek, zituen ezaugarri guztietatik, besteei laguntzeko beti prest zegoen bihotz oneko pertsona izan zela nabarmendu dute.

Franciscok prestakuntza zabala izateaz gain, sormen handia zuen. Aitak enpresan sartu zuenean atal guztietatik pasarazi zuen; behetik gora egin zuen, beraz, enpresan ibilbidea. Aita erretiratu eta Omegaren kudeaketaz arduratu zenean, hainbat berrikuntza sortu eta patentatu zituen. Horrek enpresa urte askotan lehiakorra izatea eta aurrean ibiltzea ahalbidetu zuen.

Cafeteras Omegak Bigarren Mundu Gerra gainditzea lortu zuen. Urte gutxira hil zen Rafael Urbe Iriarte Ziraukin bihotzekoak jota, 1949ko otsailaren 1ean. Azken handitzea egin zuen Franciscok gero, enpresak bolumen handia hartu zuen eta bere baitan moldategia, torlojutegia, muntaketa, leunketa eta kromaketa atalak barne bildu zituen.



Francisco Urbe Irigoyen eta haren emazte Juana Peña Iriarte beren bost seme-alabekin: hurrenez hurren, Pako, Maria Jesus, Rafa, Juani eta Maria Luisa. Urbe familiaren fondoa.

Jose Luis Insaustik jaso zuenez "*Omega* oso eskola ona izan zen, eta beste enpresetatik etortzen ziren ofizialen bila". Bazegoen *Omegan* Mariano Izeta izeneko langile bat, txapista aparta zen. Don Robertok, elizako parrokoak, prozesioan ateratzen den Mikel deunaren irudiari koraza eta kaskoa egiteko eskatu zion. Eta halaxe egin ziren gaur egun santuak daramatzan bi piezak *Omegako* tailerretan.

Garai hartan Franciscok merkatu berrietara zabaltzeko beharra ikusi zuen eta 1957an New York-eko Coliseoko erakusketan laudorio ugari jaso zituen "*Omega 540*" modeloak. Bere ezaugarri nabarmenena zen kafeak isurpenez egiten zituela, eta kafe kilo bakoitzeko 160 kafe espres egiten zituela. Leku nagusia lortu zuen mundu mailan oihartzun handia zuen erakusketan, eta tokiko prentsak luze eta zabal eman zuen haren berri.

Hedapen handiko urteak izan ziren. Sevilla, Katalunia, Zaragoza, Granada, Asturias, Madril, Santander, Kuba, Mexiko eta New York-en saltzen ziren, besteak beste, *Omega* kafeterak. Jende mugikortasuna gaur bezain handia ez zen garai hartan, hunkitu egiten omen ziren herritik urrun zeuden oreretarrak tabernaren batean *Omega* bat ikusten zutenean. Kafeteren plakan Rentería jartzen zuen, herritarrentzat harrotasun ikur bihurtu ziren horregatik.

Espainiako estatuak ez zeukan hitzarmen komertzialik beste herrialdeekin, horregatik zaila zen kafeterak esportatzea. Arazo hori saihesteko Urbek Hendaiaiko Sokoia lantegia erosi zuen.

Esportazioak, aurrerantzean, Frantziako estatutik egingo zituen. Oparoaldi urteak izan ziren, kafeterek arrakasta handia zuten bere diseinu eta presazioengatik. Bezeroen beharren arabera hainbat neurritan saltzen ziren: 2, 3, 4, 6 eta 12 katilu presatzen zituztenak. Ordurako bere bi semeak, Rafa eta Pako, lantegian zituen lanean. Rafa tailerraren buru zen, eta Pako lan komertzialaz eta kafeteren mantenuaz arduratzen zen, hain zuzen.

Omegako langileak bertakoak ziren. Asko lantegiarekin batera hasi ziren gaztetan eta han jardun zuten erretiratu ziren arte. Lantegian emakumeak ere aritzen ziren, leunketan eta beste lan batzuetan.

Aro berria zetorren, ordea. Italiar kafeterak merkatuan gailentzen ari ziren. Geroz eta zailagoa zen haiekin lehiatzea. Bi bide geratu zitzaizkion Urberi, italiarrekin bat egitea edo bere bidea egiten jarraitzen ahalegintzea. Azken hori izan zen bere apustua. Horretarako inbertsore berriak bilatu zituen. Horri gehitu behar zaio urte haietan bankuek letren negoziazioa murriztu zutela. Kafeterak, beste lantegietako ekoizpenen antzera, letretan aldika ordaintzeko saltzen ziren. Neurri horrek, beraz, lantegien ekonomian eta tesorerian, batik batik, eraginak izan zituen, baita *Cafeteras Omegan* ere.

Oraingo honetan, ordea, Franciscok ez zuen zortea aldeko izan. Bere bazkide berriekin Milanera (Italia) feriatara zihoala, Arles-en (Frantzia) hil zen bihotzekoak jota 1969ko apirilaren 13an. Hori izan zen *Cafeteras Omega* eta Urbe familiaren arteko harremanaren akabera.

Bazkide berriek lantegia Andoainera eraman zuten eta handik gutxira itxi egin zuten. Ourretako *Cafeteras Omegako* lantegia 1981eko ekainaren 16an eraitsi zuten. Haren lekuan, urte batzuetan, autoen aparkalekua egon zen. Ondoren, etxe bat (Pablo Iglesias 8) eta parke bat eraiki zituzten.



Gaur egun inora ez badaramate ere, urtetan Urbetarrek erabili zituzten bidearen gainetik igarotzen zen zubira igo eta *Omegako* beren etxera iristeko. *Cafeteras Omegaz* gelditzen den aztarna bakarra. Jon Urbe.





25º aniversario del Centro de Iniciación Profesional

José Ángel Rodríguez Medina

Corría el año 1989 cuando una decisión política bien pensada puso en marcha un proyecto de educación compensatoria para estudiantes desatendidos, alumnos de 14 años que andaban muy mal en sus centros educativos y a los que había que darles una salida honrosa. Una oportunidad a estos jóvenes para retomar el camino de la formación, del aprendizaje, una ocasión para interpretar la vida y disfrutar de ella en todos sus matices. Un proyecto socio-comunitario ambicioso que el Ayuntamiento de Errenteria ha sostenido sin fisuras en todos estos años.

Estos 25 años de actividad docente en el Centro de Iniciación Profesional han sido duros y con grandes incertidumbres, debido a los constantes cambios y adaptaciones legales que esta formación y centros educativos han experimentado.

Hoy es un centro de referencia. El cambio en el alumnado ha sido posible al haberse contado con profesionales que se han empeñado en romper estereotipos y prejuicios en el ámbito de la educación. Profesores que propusieron programas basados en actitudes, que valoraron el aprendizaje con sentido, que facilitaron una primera experiencia laboral. Especialistas que se han ganado a pulso, día a día, el respeto de sus alumnos y a los que la Administración aún debe el reconocimiento debido.

Todo comenzó en la Casa del Capitán, debajo de las escaleras, mientras se habilitaban las antiguas escuelas públicas de Alaberga. La propia Administración Educativa tenía serias dudas, llegando a decir que “esta población de alumnos que decís que vais a atender no existe”. No solo existía, sino que se consiguió formar cuatro grupos de educación “no reglada” y con un enfoque metodológico rompedor, en un ámbito tutorial y de tecnología (preprofesional).

Contra todo pronóstico, el 21 de mayo de 1990, alrededor de 60 alumnos de 13/14 años comenzaron el programa de educación compensatoria en las antiguas instalaciones de E.P.A. (Enseñanza para Adultos) de Beraun.

Estos centros se empezaron a canalizar, siendo Eibar y Errenteria la punta de lanza y la referencia de Gipuzkoa.

El 21 de enero de 1991 se puso en marcha el Centro en las escuelas públicas de Alaberga, adaptándose las infraestructuras existentes, para comenzar a consolidar esta aventura educativa que nunca ha contado con mucho apoyo de otros centros educativos de la comarca, lo que supuso un hándicap en contra para trabajar con mayores garantías de éxito. A los 5 años se volvió a adaptar el Centro a la Iniciación Profesional.

A pesar de ello, Miguel Buen como alcalde, Juan Carlos Merino como técnico superior y Carlos Sánchez como delegado de educación, apostaron por este proyecto y este año ya cumple su 25º aniversario.

Desde el comienzo se planteó como un contrato administrativo de 4 años de duración, fórmula adoptada por los cuatro municipios más importantes de la provincia, siendo adjudicataria la empresa Deikagest, S.L., que actualmente cuenta con 7 empleados y cuyo gerente y director es Manu Ramos, profesional de la psicología y licenciado por la U.P.V. Todo el profesorado es licenciado universitario y/o F.P. de Grado Superior.

La financiación de este proyecto comenzó siendo de un 60% a cargo del Gobierno Vasco y un 40% del Ayuntamiento, pasando años posteriores al 100% del Gobierno Vasco, siendo las obligaciones del Ayuntamiento las de conservar, mantener y adecuar las instalaciones.

En 1994 los centros de Errenteria y Eibar pasaron a integrarse en la Red de Iniciación Profesional del Gobierno Vasco (16/21 años) y en los años de andadura, dependiendo de la economía y por ello de las máquinas que se podían comprar, han tenido diferentes módulos profesionales. Se comenzó con Carpintería de Madera, Mecánica Industrial y luego Electricidad en baja tensión, con el único fin de enganchar a los alumnos a los ámbitos educacionales y profesionales y procurar la mejora de actitudes y valores.

En 1995, en colaboración con la Agencia Comarcal de Desarrollo Oarsoaldea, trabajaron con

la Comunidad Económica Europea el programa transnacional denominado "Youth Start" (rebautizado por los responsables del centro como "Trebalan"), donde se trató de desarrollar un método de aprendizaje que resultara más efectivo que lo que se había conocido hasta la fecha en el ámbito académico, la denominada metodología de autoaprendizaje estructurado.

En el año 2008 la Iniciación Profesional deja paso a la Cualificación Profesional Inicial para alumnos de 16/18 años. En 2014 con la LOMCE se convierte en Programa Transitorio Integrado.

Se comenzó con alumnos con situaciones muy complicadas: unos estaban en procesos judiciales, otros en familias desestructuradas, otros en claro riesgo de exclusión social, otros con déficits psicossociales... y que creaban en el barrio problemas en tiendas o con los vecinos, por lo que se prohibió la salida de alumnos del centro. El perfil actual del alumnado no tiene nada que ver con el del inicio. Ahora se asemeja a cualquier otro centro educacional de la villa.

Jóvenes que no aprueban sus estudios y que son dirigidos al C.I.P., al cabo de un año son irreconocibles. Vuelven a tener interés por los estudios. Es un trabajo de tutoría con mayúsculas lo que se imparte en el C.I.P., que consigue que los alumnos elijan caminos y estudios que no entraban antes dentro de sus opciones.

Manu Ramos recordaba cómo para mejorar la formación y atención que se impartía, tuvieron que sacar de los sueldos de los profesores una cantidad de dinero para poder tener un conserje. Eran años duros, de mucho esfuerzo y dedicación, pero que,





haciendo una valoración adecuada, resultan positivos, ya que han sido en estos 25 años muchos los jóvenes que han salido adelante.

Alumnos que estaban prácticamente desahuciados educacionalmente han sido capaces de buscar su lugar y salir al mercado laboral con una garantía de formación que les permite vivir adecuadamente y ser personas aptas laboralmente.

En estos proyectos, en cada curso, una vez terminadas las actividades obligatorias, tienen la oportunidad de desarrollar trabajos vinculados a sus gustos, realizando verdaderas obras que van desde

una tabla de esquí, percheros, alacenas, trineos, bancos, sillas, juguetes, llaveros, hasta la colocación de suelos de madera, frisos o mobiliario. A los 2 años realizan formación de 3 meses en empresas para superar su ciclo formativo y tienen fama de ser unos alumnos muy creativos.

Hoy vuelve la incertidumbre con un nuevo cambio educativo, ya que desde el Departamento de Educación del Gobierno Vasco les han informado de la próxima implantación, a partir del mes de septiembre, coincidiendo con el curso 2015-16, de la nueva Formación Profesional Básica, que supondrá para el C.I.P. de Errenteria jugar en una



categoría superior y conllevará una mejora en la formación, una mayor especialización y un prestigio para el centro, con el gran cambio que supone el que ahora se podrá acceder directamente al Grado Medio de Formación Profesional.

En estos momentos la infraestructura del C.I.P. consta de dos edificios con un total de 700 m². El primero tiene las oficinas administrativas, taller de carpintería, biblioteca, sala de informática y varias aulas. El segundo, un taller mecanizado, un taller de programa complementario, aulas y almacén.

En el exterior coexisten las zonas ajardinadas y de esparcimiento verde con un pequeño frontón, campo polivalente de futbito, balonmano y baloncesto, así como un espacio con diferentes máquinas de bebidas, comidas y cafés.

Los nuevos tiempos también han traído la modernidad, con la adaptación del Centro a la red informática e Internet, teniendo hoy en día, una página web www.ciperrenteria.com y Facebook con la denominación de CIP Errenteria.

Las actividades que se van a realizar el 5 de junio para celebrar este 25º Aniversario se llevarán a cabo en el Auditorio Niessen, donde está programado un visionado de diferentes vídeos de los trabajos realizados y de los alumnos en su entorno, para finalizar con un concierto de Rock and Roll, para seguir metiendo marcha al cuerpo, con la actuación del grupo Burun Danga.

El C.I.P. estará decorado para la ocasión y tendrá una exposición de diferentes trabajos realizados por los alumnos.

También es momento de hacer balance, sí; de recordar lo bueno y de no olvidar los sinsabores que obligaron a mejorar, a cambiar, a reinterpretarse, a trabajar desde realidades aparentemente excluyentes, contradictorias. A interpretar la realidad educativa que se presentaba en clave de desafío profesional y humano.

Pero también, aunque el futuro es incierto, es momento de recordar que esto sigue y que ni se quiere, ni puede echarse a un lado. Porque sigue el compromiso y sigue la acción.

Enhorabuena.



Aquellas viajeras del siglo XIX

Josean Ruiz de Azúa

El siglo XIX fue el siglo de los grandes viajeros y las grandes exploraciones, y fue también el siglo en el que aparecen movimientos que, como el sufragismo, tienen por objeto la liberación de la mujer. Como consecuencia de todo el siglo XIX es, igualmente, el de las mujeres viajeras.


Cristina Morató, una de las autoras que se ha ocupado de este asunto, nos dice que esas numerosas mujeres viajeras buscaban huir del asfixiante ambiente decimonónico, en el que la sociedad no les ofrecía sino criar a los hijos, cuidar del hogar y servir al marido¹. Lo cierto es que algunas de las viajeras de las que trataremos responden a ese perfil, pero en otras el viaje tiene un carácter más familiar.

De algunas de esas viajeras no sabemos nada porque nada dejaron por escrito, pero de muchas otras queda su testimonio —literario y, a veces, gráfico—, y una muestra es la lista que presenta Jane Robinson con aproximadamente 350 nombres de mujeres que escribieron sus viajes en inglés².

No hubo zona del globo terráqueo que no hollaran esas trotamundos, desde los países europeos hasta las tierras más recónditas de Asia y África, y el País Vasco, claro está, no fue una excepción. La forma de acceder a la península, dejando a un lado los casos excepcionales en los que se llegaba en barco, era por los pasos fronterizos de Port Bou y el más frecuentado del Bidasoa, y cuando se

utilizaba este último el viajero tenía que atravesar necesariamente tierras vascas.

En el País Vasco eran objeto de visita, especialmente, las villas y ciudades favorecidas por el desarrollo de los medios de transporte y vías de comunicación, Errenteria entre ellas, ya que, con la apertura de la carretera Andoain-Irun en 1845 y más tarde con la de la línea de ferrocarril en 1864, era paso obligado de quienes cruzaban el Bidasoa para adentrarse en la Península. Antes de esa fecha los viajeros, en general, utilizaban la carretera que iba de Irun a Hernani por Oiartzun y dejaban a un lado Errenteria. Así lo hizo, por ejemplo, Caroline Elizabeth Wilde Cushing en 1829.



HENNEBUTTE, Charles: "Description des environs de Bayonne et de Saint-Sébastien", Bayonne, Imprimerie de Veuve Lamagnère, 1851, con la ilustración de Hélène Feillet.

El paso obligado por Errenteria facilita que esas viajeras recalen en nuestra villa, pero también provoca que la vean como un simple lugar de trán-

1. MORATÓ, Cristina: "Viajeras intrépidas y aventureras", 4ª ed. Barcelona: Mondadori, 2006.
2. ROBINSON, Jane: "Wayward Women: A Guide to Women Travellers", Oxford University Press, 1990.

sito, hacia un destino más importante como solía ser San Sebastián, especialmente en el caso de los viajes en ferrocarril. Sabemos de muchas viajeras que cruzaron Erreterria sin dejar testimonio de ello en sus libros: Madame Vervel (1853); Mathilde van Eys (1866); Lady Mary Elizabeth Herbert (1866) que escribió: “Hasta San Sebastián el viaje careció por completo de interés ni aventura de ningún tipo”; Marguerite Tollemache (1870); la Marquesa d’Auxais Léziart (1877); Marie Bashkirtseff (1881); Susan Hale (1882); Ellen Charlotte Hope Edwardes (1882); Fanny Bullock (1895), en el recorrido en bicicleta que realizó con su marido; Louise Chandler Moulton (1896); Maria Star (1899); o Katharine Lee Bates (1899), quien, sin embargo, sí visitó Pasaia.

En ocasiones otros motivos aconsejan pasar rápidamente por Erreterria, así Claudia Hamilton Ramsey, que viajó en 1874, en pleno conflicto carlista, decide atravesar rápidamente el peligroso País Vasco para ganar la seguridad que le ofrece Burgos. Tras sufrir un minucioso registro en la aduana, Mrs. Ramsey declara:

“Nos habría gustado mucho detenernos en San Sebastián y también en Pasajes, donde el puerto es sumamente curioso; es como un lago escocés o un fiordo escandinavo, solo que más cerrado al mar. Pero en la actual situación, pensamos que sería más sensato atravesar la zona carlista lo más rápido posible e ir directamente a Burgos”³.

Pero en lo que se refiere a las viajeras que dejaron su testimonio sobre Erreterria, nuestro periplo literario comienza con la francesa Joséphine de Brinckmann (1808-?). Joséphine recorrió la Península en los años 1849 y 1850, época en la que viajar era incómodo y peligroso y más aún si quien viajaba era una mujer y lo hacía por su cuenta. Quizás por eso entre las pertenencias del equipaje de Joséphine, que acostumbraba a viajar sola y con indumentaria masculina, no solía faltar una pistola.

Desoyendo los consejos de su hermano Hugues, quien intentó que desistiera en su empeño aduciendo los argumentos habituales en estos casos —mala calidad de las posadas, caminos peligrosos,

3. RAMSAY, Claudia Hamilton: “A summer in Spain”. Londres: Tinsley Brothers, 1874.

medios de transporte deficientes—, Joséphine se pone en marcha en 1849, seis años después del conocido viaje de Víctor Hugo por tierras vascas, y describe sus experiencias en un libro titulado *Promenades en Espagne pendant les années 1849 et 1850*, escrito en forma epistolar, como una serie de cartas que le iba enviando a Hugues, y del que existe traducción al español⁴. Su intención es ofrecer información útil a los viajeros, lo que hace que el libro esté entre la guía turística y el diario de viaje:

“Dado que soy una apasionada por los viajes, me encontraría recompensada del trabajo que me va a proporcionar poner en orden mis notas, si éstas pudieran ser útiles a las personas que comparten mis aficiones. Estos recuerdos, que cada noche escribía agotada por la fatiga y en combate encarnizado por el sueño, no necesitan ampliarse sino ser revisados y corregidos”.

Como era norma, Joséphine atraviesa la frontera por Irun y llega a Erreterria:

“Estamos en plena Vizcaya; el país es encantador, muy accidentado y regado por buenas aguas; las montañas no son muy altas, son arboladas y los valles bien cultivados. Observo hileras de hombres y de mujeres labrando la tierra tan al unísono como militares marcando el paso. La carretera es más estrecha que las de Francia pero buena; la bordean bancos de césped, el *mayoral* me dice que es para servir de pretiles. Algunas casas en ruinas, esparcidas aquí y allá y que son el triste testimonio de la última guerra civil, añaden pintoresquismo a la vista. Atravesamos la pequeña villa de Rentería y dejamos a la derecha una prominencia que se eleva en medio del valle sobre la que están el antiguo convento y la iglesia de Lezo: nada más bello que este cuadro”.

El tono es el de la narración subjetiva, característica del viajero romántico, alejada de la frialdad de la guía turística.

Casi a continuación del paso de Joséphine de Brinckmann por Erreterria debió suceder el de la familia Hennebutte-Feillet, probablemente hacia

4. BRINCKMANN, Joséphine de: “Promenades en Espagne pendant les années 1849 et 1850”. París: Franck, 1852. Traducción al español: “Paseos por España (1849 y 1850)”. Madrid: Cátedra, 2001.

1851 ó 1852. Los viajeros eran Charles Hennebutte, su mujer Blanche Hennebutte (1812-1889) —Blanche Feillet de soltera— y la hermana de ésta, Hélène Feillet (1815-1886). Aunque nacidas en París, Blanche y Hélène eran hijas de Pierre Jacques Feillet, pintor y litógrafo que se instaló en Baiona en 1834, y heredaron de su padre la condición artística. Ambas nos han dejado pinturas y litografías de diversos rincones del País Vasco; Blanche, además, llegó a ser directora de la Escuela de Dibujo y Pintura de Bayona.

Blanche se casó con el impresor Charles Hennebutte, quien puso en marcha un proyecto de turismo en Euskal Herria a través de varias publicaciones que proponían visitas. En una época en la que el turismo se estaba poniendo de moda los libros de Hennebutte además de proponer visitas a localidades de interés turístico indiscutible, también lo hacían a localidades industriales como Tolosa o, para el caso que nos ocupa, Errenteria. Las dos hermanas colaboraron ilustrando esas guías turísticas mediante litografías y xilografías. También hicieron dibujos (de Irun, Pasaia, etcétera) que no se publicaron y entre los que es posible que haya alguna imagen inédita de Errenteria.

Su viaje transcurrió por el País Vasco continental y peninsular y les resultó sumamente provechoso, ya que utilizaron los textos escritos y las imágenes obtenidas durante el mismo en tres obras.

La primera es *France et Espagne: album de deux frontières: vues des environs de Bayonne et de St. Sebastien*⁵, obra que carece de texto y que presenta litografías de Blanche Hennebutte, como se indica en la portada. Hay litografías de Pasaia, pero no de Errenteria.

La segunda obra es *Description des environs de Bayonne et de Saint-Sébastien*⁶, y lleva textos de Charles Hennebutte y otros autores e ilustraciones cuya autoría se atribuye en la portada a Hélène Feillet y Blanche Hennebutte-Feillet. Efectivamente,

la obra recupera parte de las litografías de Blanche que aparecían en la obra anterior, ocupando la página completa, como es habitual en las litografías; pero llama la atención una serie de imágenes nuevas intercaladas con el texto, entre ellas una de Errenteria, sin duda xilografías, y que pueden estar relacionadas con la incorporación de Hélène como ilustradora. Hélène debió ser la autora del dibujo y la firma de *Jardin* que aparece en la ilustración debe corresponder al grabador que lo trasladó a la plancha de madera.



Hélène Feillet, vista de Errenteria, en *Description des environs de Bayonne et de Saint-Sébastien*.

La imagen de Hélène Feillet reproduce una vista poco habitual de Errenteria: la calle Kapitaneña en su extremo norte, con la puerta que la cerraba y que, como la de Ugarritze y la de la Alhóndiga, era puerta de mar⁷.

La tercera obra es *Guide du voyageur de Bayonne a St-Sébastien*⁸, de nuevo recuperando la información publicada anteriormente, con textos de Charles e ilustraciones de Blanche y Hélène. En

5. HENNEBUTTE, Blanche: "France et Espagne: album de deux frontières: vues des environs de Bayonne et de St. Sebastien". Bayonne: Chez Chs. Hri. Hennebutte, 1850.

6. HENNEBUTTE, Charles: "Description des environs de Bayonne et de Saint-Sébastien". Bayonne: Imprimerie de Veuve Lamaignère, 1851.

7. Sobre esta imagen ya me ocupé en un artículo anterior. Si alguien tiene interés, puede consultar el trabajo "Kapitaneña 1850-2010: kale baten bilakaera 160 urtean zehar", en *Oarso*, 2010.

8. HENNEBUTTE, Charles: "Guide du voyageur de Bayonne a St-Sébastien". Bayonne: Imprimerie de Veuve Lamaignère, 1852.

el caso de Errenteria, presenta la misma ilustración y el mismo texto, salvo un párrafo añadido que no aparece en la obra anterior.

Las imágenes de las hermanas Feillet se caracterizan por su fidelidad al natural y están dibujadas *in situ*, como dice la portada de forma explícita: *dessinées d'après nature*. Y en el prefacio se insiste en esa idea: “on peut compter sur une reproduction aussi fidèle que possible: toutes ces études ont été faites sur le lieu même”.

Esa fidelidad se puede comprobar comparando esas reproducciones con los paisajes o monumentos actuales, en el caso de los que han llegado a nuestros días, y con otras imágenes de la época de autores de tono más romántico en el caso de paisajes transformados o desaparecidos. El realismo de las hermanas Feillet es obligado en una obra que quiere ser una guía y que también incluye informaciones prácticas tales como un vocabulario o las equivalencias de la moneda.

Quienes estén interesados en la obra de estas hermanas, pueden visitar la hermosa exposición que el Museo Zumalakarregi de Ormaiztegi ofrece en el momento en que escribo estas líneas y que viajará después a Baiona.



Louise Bourbonnaud.

Dejamos correr algunos años y llegamos al de 1882 y a una nueva viajera: Louise Bourbonnaud (18..?-19..?). Louise contó sus viajes en tres obras agrupadas bajo el título *Seule à travers 145.000 lieues terrestres, marines et aériennes*⁹. Esas 140.000 leguas de viaje terrestre, marino y aéreo evocan más una novela de Julio Verne que

las vivencias de una viajera que también tuvieron no poco de novelesco. Veamos:

Louise se casó con el empresario parisiense Etienne Bourbonnaud y formó parte de la alta sociedad de París. Tras enviudar en 1875, decidió dedicarse a su pasión viajera: descubrir el mundo y sus gentes.

Esta mujer moderna y deportista —excelente nadadora y buceadora—, viajera intrépida y de gran fuerza de voluntad, recorrió el continente americano, Asia, África y Europa. Durante sus viajes tuvo que hacer frente a numerosas situaciones difíciles: ataques de bandoleros, estafadores, etcétera.

Siempre dispuesta a ayudar a los desfavorecidos, utilizó sus influencias y su patrimonio para crear fundaciones, hospitales, guarderías... especialmente en su distrito de París —el XVIII— y participó activamente en la fundación de la Sociedad para la ayuda a los heridos del ejército y la marina, que más tarde se convirtió en la Cruz Roja francesa.

También creó en 1891 y dotó con 350 francos el premio de la Sociedad Geográfica de París que lleva su nombre y que se concede a las historias de los grandes viajeros franceses.

Louise deja clara su postura en las primeras líneas de su relato:

“¡Qué naturaleza tan impresionable la de la mujer! Una nadería la trastorna, la asusta, le hace perder la cabeza; qué organización tan incompleta desde el punto de vista de la sangre fría, de la presencia de ánimo, de la impasibilidad ante las dificultades de que está erizada la vida y con las que se encuentra a cada paso. Sin el hombre, ¿qué hará? ¿cómo les hará frente, la pobre? Pues bien, yo, mujer, he querido mostrar que estas ideas comienzan a estar caducas y desfasadas.

Siendo todavía joven y disfrutando de una buena fortuna, viuda, es decir, dueña de mis actos, me puse a dar “mi vuelta al mundo”, no en 80 días, sino según mi capricho, regresando después de cada viaje a la mayor estación humanitaria y espiritual que hay en el mundo: París.

9. BOURBONNAUD, Louise: “Seule à travers 145.000 lieues terrestres, marines et aériennes: Premier voyage (Europe 45.000 lieues) España, Portugal, Gibraltar, Maroc”. París: ed. L. Bourbonnaud, [s.d.], No conozco traducción de la obra al español. Como en el resto de los casos en que sucede lo mismo, la traducción que ofrezco es de mi propia cosecha.

Empiezo con la historia de mi primer viaje, en el que probé mis alas: mi viaje a través de España”.

Esa declaración no era gratuita, en vista de opiniones como la que publicó la revista satírica *Punch* once años más tarde, en 1893:

“¿Una lady exploradora? ¿un viajero con faldas? La sola idea resulta una trivialidad demasiado ilusoria. Dejémoslas en casa cuidando de los niños o remendando nuestras viejas camisas. ¡Ellas no deben, no puede ser geógrafas!”¹⁰.

Louise no era mujer a la que le gustara arrastrar ningún tipo de lastre: parte de Burdeos, y viaja en ferrocarril con dos pequeñas maletas, ya que quiere ir ligera, y lleva sólo lo imprescindible: aquello que vaya necesitando lo comprará allá donde se encuentre y cuando ya no le haga falta se deshará de ello.

Así comienza su viaje:


“En el ferrocarril se dirigieron a mí amablemente, en España se establece relación enseguida; los viajeros y las viajeras me hicieron muchas preguntas, ya que mi aislamiento les intrigaba. En cada estación me decían el nombre de la tierra, me explicaban las cosas más interesantes del lugar. Así atravesé Rentería, San Sebastián, que tengo que volver a visitar, Hernani que me recordó al gran poeta. Vi el rostro dulce de Doña Sol y de su hermoso prometido y permanecí largo tiempo con los ojos fijos en la ciudad que se alejaba tras de mí.

(...)

Rentería es una localidad que data del siglo XVI y que todavía conserva las casas de aquellos días, perforadas por pequeñas ventanas ojivales, dispuestas a pares”.

Aunque los viajes de este artículo responden en su mayoría al patrón de viajes en solitario o en

10. “To the Royal Geographic Society”, revista satírica *Punch*, junio 1893. Citada tomada de: MARCHANT RIVERA, Alicia: Escritura femenina y viajera: visiones de Lady E. Mary Grisvenor, Louise M. A. Tenison, M. C. Jackson y Olive Patch sobre el cementerio inglés de Málaga. *Estudios sobre el patrimonio andaluz*. Málaga: AEDILE, 2008.



Portada de la *Revue des Pyrénées et de la France Méridionale*, en la que se publicó el viaje de la Sociedad Francesa de Arqueología.

familia, los hay que escapan a esta clasificación. Así, entre el 11 y el 25 de junio de 1888, un grupo de sabios pertenecientes a la *Sociedad Francesa de Arqueología* emprende un viaje arqueológico de Dax a San Sebastián, según el relato de Anatole de Roumejoux titulado *Voyage archéologique de Dax à Saint-Sébastien*¹¹.


Allá por donde pasa este grupo va siendo recibido y agasajado por las autoridades locales y visita los monumentos dignos de mención, de

11. ROUMEJOUX, Anatole de: “Voyage archéologique de Dax à Saint-Sébastien”, en *Revue des Pyrénées et de la France méridionale: organe de l'Association pyrénéenne et de l'Union des sociétés savantes du Midi*, Tomo IV, año 1892, 1er fascículo, Toulouse, E. Privat, 1892.

lo que da cumplida cuenta el autor en su artículo. El carácter científico del viaje no es impedimento para que disfruten también de actividades de ocio. Errenteria es la última localidad que visitan antes de la despedida en San Sebastián. Comienzan siendo recibidos por un aurreku en Lezo y a continuación visitan la iglesia de Errenteria y cuanto ella contiene, así como las casas de la villa de más interés, según nos cuenta Anatole de Roumejoux.

En el grupo viajaban 33 congresistas de sexo masculino y tres mujeres: Madame de Poul, Madame Le Féron de Longcamp y Madame Wilson. Si bien el texto francés no nos da más información de ellas, existe un par de artículos escritos a este lado de la frontera que dan cuenta de dicho viaje desde el punto de vista de los anfitriones. En ellos se nos informa de que las tres francesas viajaban en calidad de esposas de arqueólogos¹².

El 1 de abril de 1891 el matrimonio Hill James parte de Hendaia para recorrer el País Vasco a este lado de la muga durante 28 días. Los Hill James vivían en Iparralde y, pasado el invierno y llegada la primavera, se les ocurrió este viaje. Como medio de transporte emplearon un *dog-cart*, un tipo de carruaje en principio dedicado a la caza, como su nombre indica en inglés, de dos caballos y dos ruedas, con capacidad para una pareja de pasajeros. Sus andanzas quedan recogidas en un libro, en el que el marido se ocupó de los textos y la mujer de las escasas ilustraciones. El primer día pasaron por Errenteria camino de Donostia y alabaron los parajes atravesados. A pesar del aviso —inevitable, según parece— de algunos amigos sobre el riesgo de toparse con ladrones y la mala calidad de los alojamientos, la pareja quedó muy satisfecha de la experiencia¹³.



Dog-cart. Medio de transporte utilizado por el matrimonio Hill-James en su viaje.

Unos años después, en 1897, se publica el libro de E. A. Menassade *A travers le Guipuzcoa: impressions*.¹⁴ El autor era un desconocido y así lo habría seguido siendo si Patricio Aguirre de Tejada no hubiera escrito un artículo titulado *Las señoritas de Menassade y su libro "A travers le Guipuzcoa"*¹⁵. Aguirre nos informa de que E. A. Menassade son las hermanas Emilia y Ana Menassade, nacidas hacia 1860 en París y que llegaron en 1870 a España con su padre. Emilia era pintora, vivió en Asturias y Madrid y participó en diversas exposiciones. Ana fue profesora de francés y dio clases a los infantes de España en el palacio de Miramar. ¿Cuál de ellas escribió el libro? Según Aguirre lo hicieron entre ambas: las iniciales E. A., por tanto, corresponderían a Emilia y Ana.

José Gómez de Arteche¹⁶, en cambio, discrepa y opina que el libro lo escribió Emilia, quien añadió la inicial de su hermana debido al amor que le tenía. Sea como sea, la narradora o narradoras viajeras parten de la muga del Bidasoa y llegan en tren a Donostia. Desde allí, visitan los alrededores, a veces utilizando transportes y a veces a pie: Ulía, Altza, Pasaia, Lezo y Errenteria. Éste es el texto que nos dejaron sobre Errenteria:


12. Esos artículos son los siguientes. ARZAC ALBERDI, Antonio: *La Sociedad Francesa de Arqueología en Euskaria* en "Euskal-Erria: revista vascongada", Donostia, t. 18 (1ª semana de 1888); OLANO, José: *El congreso arqueológico de Francia en Dax y Bayona. 1888* en "Euskal-Erria: revista vascongada", Donostia, t. 23 (2ª semana de 1890).

13. HILL JAMES, W: "A tandem-trip in Spain: from Biarritz through the Basque Provinces". London: R. H. Porter, 1892. En la primera edición del libro no se menciona su paso por Errenteria, sí en cambio en la segunda edición de 1905. No conozco traducción de esta obra.

14. MENASSADE, E. A.: "A travers le Guipuzcoa: Impressions". Paris: Hachette & Cie. Éditeurs, 1897. Tampoco en este caso hay traducción de esta obra, que yo sepa.

15. AGUIRRE DE TEJADA, Patricio: *Las señoritas de Menassade y su libro "A travers le Guipuzcoa"* en "Euskal-Erria: revista vascongada", Donostia, t. 37 (2ª semana de 1897).

16. GÓMEZ DE ARTECHE, José: *A travers le Guipuzcoa. Impressions de E. A. Menassade*, Boletín de la Real Academia de la Historia, t. 31, cuaderno V, noviembre de 1897.



Portada del libro de las hermanas Menassade.

“Saliendo de Lezo, retomamos la carretera que se abre otra vez, bella y pintoresca. Nos conduce a la villa vecina: Rentería.

Hoy en día, Rentería es una de las villas más industriales y comerciales de la provincia. Se han establecido numerosas fábricas. La de tejidos es la principal industria.

El origen de Rentería es de los más antiguos.

Conocida antaño con el nombre de Orereta, la villa se llamó más tarde Consejo de Oyarzo, hasta que Don Alfonso XI de Castilla le concedió, en 1230, su *Carta puebla*.

En 1494, su población ya era importante. Tuvo que sufrir constantemente las invasiones francesas que se repitieron tan a menudo en la frontera; su vecina, Fuenterrabía, siendo siempre la manzana de la discordia, cayendo en manos de unos para ser recuperada por los otros, fuente de luchas interminables, de trueques, de ataques, de estragos, de incendios, de destrucción, provocados por una y otra parte.

¡Recuerdos desdichados! Sobre todo en los países que no saben olvidar, donde las luchas entre los pueblos no se contemplan como la con-

secuencia fatal de situaciones que no se pueden resolver más que mediante las armas, de ambiciones personales por las que un solo hombre arrastra a todo un pueblo, de intereses nacionales en los que se impone mantener la dignidad, de razones que, más tarde, tras la derrota o la victoria, la historia escribe fríamente y juzga sin parcialidad.

Es triste constatar que estos recuerdos no despiertan en ciertas naturalezas más que el odio, transmitido fielmente a las generaciones futuras. Triste error que no saben borrar ni el tiempo ni la civilización, ni siquiera los intereses, y que encorseta en ocasiones, e incluso a menudo, el alma y el corazón de los más inteligentes y nobles.

La villa, para su defensa, se rodeó de murallas y tuvo sus casas torres (mansiones fortificadas). Las ruinas de algunas, destruidas durante los incendios de 1476, 1512, 1638, existen todavía.


En estas invasiones sucesivas desaparecieron todos los vestigios que tenía la villa de su antigüedad.

Rentería también tuvo importancia marítima. Llegó a contar con hasta dos mil marinos y cincuenta capitanes. Su comercio era tan floreciente que en los libros de su archivo, hay registrados navíos de ochocientas toneladas. Hoy en día no subsisten más que restos de su astillero y de su puerto. El Oyarzun, entonces navegable, y por el que Rentería comunicaba con Pasajes, está colmatado. El lodo impide el acceso de los navíos.

La iglesia parroquial Nuestra Señora de la Asunción, se remonta al siglo XVI. Su magnífico retablo, diseñado por Ventura Rodríguez y ejecutado por Azurmendi en 1784, es de jaspe, provisto por las canteras del monte Archipi, situadas en los confines de la villa. El templo tiene tres naves que se soportan en ocho gruesas columnas. Su torre merece en especial un atento examen por la habilidad y la audacia con las que se construyó un sencillo arco, levantado en uno de los ángulos de la iglesia y que sostiene por sí solo esa masa enorme sin más apoyo que un ligero arbotante en la cumbre de su ángulo en la parte sur.

El frontispicio, de orden dórico, hace un buen efecto, a pesar de una detestable restauración.

Rentería también tiene casas bonitas con hermosos balcones y curiosos entramados de madera. Una de ellas presenta ventanas trilobuladas, en forma de estrella, y una puerta avanzada sobre ménsulas que pertenecen a la última época del período ojival.



Emilia Pardo Bazán y su obra *Cuarenta días en la exposición*.

Rentería lleva en su escudo el título de Noble y Leal.

El origen de su nombre viene de que antaño se pagaba las rentas reales en esta villa”.

Nuestro viaje literario termina en el último año del siglo, en 1900, con Emilia Pardo Bazán (1851-1921), que a su condición de gran escritora sumaba la de gran viajera (escribió un par de libros de viaje). Emilia Pardo Bazán marchó a la Exposición Universal de París¹⁷, desde donde escribió una serie de crónicas para el periódico *El Imparcial*, crónicas recogidas en sus obras completas con el título “Cuarenta días en la exposición”¹⁸. La Condesa no pasó por Erretería, que nosotros sepamos, pero en las mencionadas crónicas narra, entre otras cosas, su visita al pabellón español, y en el capítulo dedicado a la alimentación encontramos estas líneas,

17. Antes de la Exposición Universal de París de 1900, Emilia Pardo Bazán ya había visitado la Exposición Universal de París de 1889 y recogido sus impresiones sobre la misma en dos obras “Al pie de la Torre Eiffel” y “Por Francia y por Alemania”.

18. PARDO BAZÁN, Emilia: “Cuarenta días en la exposición”, en *Obras completas*, Tomo XXI Madrid, Idamor Moreno, pp. 65, 66.

cuando menos curiosas, dedicadas a la fábrica que hizo que se nos conociera como *galleteros*:

“Deseosa de alabar iniciativas, fui a la bizcochería española —que así la nombran en los planos—. Pero, ¡ay! desde luego comprendí que aquel pabelloncito mudéjar, anexo a nuestra sección alimenticia, donde tan sabrosos bizcochos se fabrican a vista del consumidor, y donde mujeres tan solícitas y pulcras los despachan calientes y olorosos a millares, no era cosa de España. El dueño es un francés, que posee tres fábricas: una en París, otra en Burdeos, otra en Rentería; esta última tendrá por objeto inundar a España de bizcochos sin pagar derechos. ¿Por qué se ha acogido en París a nuestra sección este industrial? Creo adivinarlo. Nosotros hemos solicitado mucho terreno, tirando de largo, por costumbre, y aun después de construir la Alhambra, nos ha sobrado bastante. Para resarcirnos un poco, habremos subarrendado, y como el terreno a España pertenece oficialmente, era forzoso que el bizcochero francés se colocase, según me dijo una de las expendedoras de bizcochos, bajo el pabellón español”.

Y de esta forma, en París y en compañía de Emilia Pardo Bazán acaba este recorrido que hemos realizado de la mano de algunas viajeras de la segunda mitad del XIX que, de un modo u otro, tuvieron relación con Erretería durante sus andanzas.

Antonio Valverde 'Ayalderen'

Jaiotzaren mendeurrenean. (1915-2015)

Imanol Irigoien Aranberri

Aurtengo urtarrilaren hamazazpian —San Anton egunean— ospatzen genuen Antonio Valverde 'Ayalderen' jaiotzaren mendeurrena. Urte berezia, beraz, aurtengoa, haren ibilbide pertsonal, artistiko zein literarioa berriz aztertu eta ikertzeko, baita guztiz aproposa eta egokia ere haren artelanaz gozatzeko.

Aurrera segi baino lehen, orrialde hauek zirriborrotzen nenbilela, bat-batean iritsi zaigu ezus-teko albiste tamalgarria, bihotza erdibitu diguna: otsailaren 14an, izan ere —bere jaiotzako egun berean, halabeharrez—, Rosa hil zaigu, Antonio-ren alaba, sei seme-alaben artean azken-aurrena adinean, eta margolaria aita bezala. Eta lerro hauek aitari eskaintzen dizkiodan honetan, honako hitz hauek ekarriko ditut hona, alabak aita noraino miresten zuen egiaztatzen eta laburbiltzen dutenak: "...*toda mi obra es un homenaje a mi padre*" ("*... nire obra guztia aitari egindako gorazarrea da*"; DV, 2015.02.16a).

Urte berezia dela genioen aurtengoa, aitarien mendeurrena ospatzen dugulako: bada, are bereziagoa gertatuko zaigu alabaren heriotzarekin. Har beza atsedean Rosak, eta goian bego, bere gurasoen ondoan: Antonio eta Maria Dolores¹.

1. 'Ayalderen' mendeurrena dela-eta, ezin ahaztu,aldi berean, Errenterian bertan jaiotako beste gizon ospetsu baten mendeurrenaz ere, urte berean jaio baitzen izen handiko beste herritar bat ere, Antonioren adiskide mina izan zena: Koldo Mitxelena filologo, euskaltzain oso eta idazle entzutetsua —1915-1987—, zeinaren jaiotzaren mendeurrena abuztuaren 20an ospatuko dugun.

Mendeurren oparoa aurtengoa!, horienarekin batera ezin baitugu aipatu gabe utzi Simon Arrieta margolari bergararrarena ere, hura jaio zela mendea bete berri baita,



"Mari Joxe", 1951. Olioa, kartoian. 46,5x37,5 zm. Valverde Lamsfus sendia.

Aipatu beharrekoak ezinbestean aipatu ondoren eta gaiaren ildoari berriro helduz, guztiz pozgarria da niretzat, baita ohore handia ere, hain begiko eta kuttun dudan gizonaz —Antonio Valverde margolari eta idazleaz— *Oarso* urteka-

otsailaren 9an. Eta orain, bitxikeria bat: bi margolari adin-kideok —errenteriarrek eta bergararrak—, urte berean —1942an—, lortu zuten *ex aequo* sari nagusia Gipuzkoako Aldundiak antolaturiko Donostiako Artista Berrien XII. Erakusketan, gure protagonistak jada lortua zuena zazpi urte lehenago, 1935eko sariketan.

rian aritzea... noiz eta bere mendeurrenean, gainera! Lagun ditudan haren seme-alabek aukera paregabea eskaini didate, eta nik bihotz-bihotzez eskertzen diet eskaintza.

Eta orain, barruan dudan pena aitortuko dut hemen: Antonio Valverderekin tratu pertsonalik ez izanaren pena eta samina. Izan ere, ni Oiartzunera bizitzera etorri nintzenerako, 1974an, baziren lau urte jada hura hila zela, 1970ean... bizitzako sasoi onenean hila ere, zoritxarrez (Simon Arrieta adin-kidea bezala, esan dezagun bidenabar, Antonio baino urtebete lehenago hil baitzen hura, 1969an). Pinturan hasi berria nintzenez, zenbat eskertuko ez ote nituzkeen maisuaren lezioak, zenbat ez kulturari buruzkoak eta, oro har, bizitzaren inguruko irakaspenak! Haren margolanak eta liburuak eskura izan eta behin eta berriz irakurri eta kontsultatu arren, zenbat nabaritu dudan, azken hamarkada hauetan, gizon eta artistaren falta gure herrian!

Aita aurpegiz baizik ezagutzen ez banuen ere, bere seme-alabak, aldiz —zaharrenak bederen—, txiki-txikitatik ezagutzeko aukera izan nuen: Xanistebanak zirela-eta —eta oiartzuarra izanik gure aita—, denboralditxo bat pasatzera etortzen ginen urtero anaia-arrebok Oiartzunera (*Exkerre-nera*), eta egonaldi horietan jakin genuen 'valverdetar' neska-mutilen berri, haiek ere, gu bezala, udatiar gisa etorriak ('beraniantik' deitzen gintuzten bertakoek...). Aurrerago, berriz, kezka sozialek bultzatuta, Lolarekin tratatzeko aukera izan nuen lehenik eta behin, hainbat ekimen bitarteko... non eta nire jaioterrian bertan, Altzan...!

Jarraian, adiskide min dudan Anttonekin jarri nintzen harremanetan, elkarrekin igaro baikenituen bost urte unibertsitate-ikasketak eginez, Donostian (aurten urrezko ezteiak, alajaina, Antton... ziztu bizian heldu izan zaizkigunak, ia konturatu ere gabe!).

Bitxikeria gisa konta dezaket Anttonek gurekin egin zituela —kurtsoko kideekin, alegia— lehen urratsak kantagintzan, 1965ean, Euskal Herriko plazetan aritu baino lehen. Eta hemen, anekdota. Karrera bukaerako bidaia egitera gindoazen, Europan zehar... eta hara non, autobusez abiatzera gindoazela, azaldu zen tipo bat hantxe, harri eta zur utzi gintuena, bere maletarekin ez ezik, gitarratxo bat ere bai baitzuen lagun, Iparragirre berpiztua baitzuen; nor izango... eta Antton, gurekin bidaiatzera

zihoan koblari ezezaguna...!, bai autobusean, eta bai autobusetik kanpora ere, makina bat kontzertu eder eskaini ziguna. Artean ezer gutxi baikenekien bere musikarako dohainez... eta hara, bada, nola lortu zuen Anttonek, handik aurrera —ikaskideon 'oniritziarekin', jakina— aurrera egitea, Euskal Herriko plaza-areto eta hedabideetan ezagun egin arte, baita arrakasta handiko abeslari bihurtu ere... kultuzko kantari bilakatzeraino!

Maria Joserekin izan ditudan harremanak, berriz, bere aitaren inguruko erakusketa, margo, idazki zein liburu kontuekin lotuta izan ohi da gehienbat, senideen bitartekari gisa ari izan ohi denez.

Eta bi senide margolarien txanda orain: Rosa eta Javierrena. Hil berri zaigun Rosarekin (1953-2015) harreman handirik ez izan arren, 1980ko hamarkadan izan nuen bera ezagutzeko suertea, Xanistebanetako kartel lehiaketa batean, Ramon Zuriarrain margolaria eta Anton Mendizabal eskulturgilea ere, besteak beste, gure artean genituela epaimahaikide gisa. Lehiaketa haiek herriko talde gazte batek (Xabier Mendarte eta Pello Mitxelena izenak soilik datozkit burura orain) antolatzen zuen, eta talde honek, hain zuzen ere, $1^{\circ} 49' 10'' - 43^{\circ} 17' 50''$ izenburuko aldizkaria (zenbaki horiek, berriz, herriko koordinatu geografikoei dagozkie) argitaratzen zuen. Bada, bai Rosarekin eta bai bere anaia Javierrekin ere parte hartu izan nuen, beste oiartzuar batzuekin batera, herriko talde berak jaietarako eratu ohi zituen hainbat *Expoiartzun* erakusketatan ere (1984-87). Ikusiak genituen ordurako Rosaren ilustrazio lan ederrak, hain pertsonalak, Amaia Lasaren *Nere paradisuetan* poema liburuan (Ediciones Vascas, 1979), bai azalekoa (koloretan) nahiz barnekoak (zuri-beltzean). Bere pintura ezagutzeko eta estimatzeko parada, berriz, Donostiako San Telmo Museoa izan genuen, lehenengoz (1978); etorriko ziren gero gainerako erakusketak, banakakoak zein taldekakoak, han eta hemen: Bergaran, Bartzelonako Joan Miró Fundazioan, Donostian, Bilbon, Hondarribian, Madrilen, Florentzian, Irunen, Izuran, Senperen, Iruñean... Horien artean, bat bakarrik aipatzearren —ez garrantzizkoena, ziur aski—, era berezian datorkit gogora Donostiako Alga Galerian egin zuen hura, 2008an, xumea bezain erakargarria: hango margo, collage zein kaxa-kutxetako iruditxo haiek (etxeko trastelekutik atereak edo nonahi jasoak: nahaspila hutsa zirenak antzezle ñimiñoak

bihurturik, zeinek eszenatoki xarmangarri-sorgin-
duak osatzen baitzituzten) ume-eta-emakume zena-
ren —Rosaren— hurbileko begirada islatzen zuten,
baita barru-barruko sentimenak eskaintzen ere:
Rosaren beraren mundua, alegia, bere-berea, askea,
ironikoa, onirikoa, umoreduna, fantasia eta magiaz
beterikoa, gazi-goza; imajina haiei zetazko kolore
meheak zerizkien: urdin, berde, arrosa... Rosaren
arrosa. Eta irudimen harrigarriko ume-eta-emakume
hark eraiki zuen bere paradisu partikularrean amai-
rik gabe bizi dira, alegiazko maitagarri-iratxoekin
batera, berak sortutako hainbat eta hainbat bizidun
bitxi, sortzailearen xalotasuna eta umorea dutenak...
baita sortzailearen mindura-atsekabeak ere sufritzen
dituztenak, aldi berean².

Eta zer esan Javier (1956) seme gazteenaz?
Lehenik, Pagoarte Kultur Elkarteko sortzaile eta
kide izan naizen aldetik, eskertu bihotzez elkar-
teak ekoiztu zuen *Oiartzungo Kantu Zaharrak* disko
konpaktuaren azal-irudia (1998), non bere ohiko
paisaia nahastezina —egunero-egunero etxeko lei-
hotik ikus zezakeena— agertzen den, ohiko ukitu
surrealistarik falta gabe... eta Aiako Harria atzeal-
dean dela, nola ez! Antton anaiak ere —beste
abeslari oiartzuar ospetsuekin batera— hartzen
du parte kantari gisa disko horretan, koordinatze
lanetan murgiltzeaz gain. Margolaritzari dagokio-
nez, saiatu izan naiz Javierren ahalik eta erakusketa
gehienak ikusten: 16 Galerian egindako biak (2002
eta 2006), Zarauzko Sanz Eneakoa (2009-XII/2010-
I), eta azkena, KMK Ganbara Aretokoa (2011).
Oroipen berezikoa niretzat azken hau, erakus-
ketara egindako azken bisitan izan nuen konpa-
niagatik batez ere, nire adiskide mina den Adolfo
Leibar —'valverdetarrena' ere badena— izan bai-
nuen lagun; hura ikusi eta gozatu ondoren, Marc
Chagall-ena ikustera joan ginen, biok zuzenean...
Gerora, zenbat aldiz ez ote genuen gure artean
gogoratuko bi erakusketetan ikusi eta ikasitakoa!
Baina natorren harira: Javierren pinturari buruz
zer...? Luze-zabal ari gintezke... laburbildu beharra
daukagu, ordea: bera inguratzen duen —eta egu-
nero-egunero arnasten eta bizi duen— paisaiaren
kontenplazioak barru-barrura darama, bihotzon-
doko sentimendu sakonenei argi egin nahian-edo.

2. Egotzi izan zaio Rosari nola-halako arreta teknikoaren falta
hainbat lanetan; nago ez ote zen nahita eginga izango bere
askatasun erabatekoa babesteko eta bere errebelia gaine-
rakoei adierazteko...


Javierren paisaia isila da, amestua, soila... haren
pintura guztia bezalaxe, oro har; bere begirada
goranzkoa da, garbia da, gardena, aratza; meta-
fisikoa hainbatetan; koherentea. Ez zaio ironiarik
falta ere, ingurumenaren degradazioak sortarazten
dion ezinegonaren erantzun gisa, nik uste. Dena
den, bere pintura hobeto ezagutzeko, eta, bidena-
bar, bere margolanen irudiak dastatu ahal izateko,
argitaratu diren erakusketa-katalogoen irakurketa
biziki gomendatzen diot irakurlari: 16 Galeriarrena
(2002koa); Sanz Enearena (2009/2010); eta dene-
tan katalogorik beteena den KMK Ganbara Are-
toarena (*Javier Valverde 1981-2011*), eta katalogo
honetatik, bereziki, Edorta Kortadi kritikari-irakas-
leak idatzitako testu bikaina (*Javier Valverderen
errealismo magiko eta amestua*), Valverde gazteari
buruz ezagutzen dudana —oraingoz— testurik
osoena, erabatekoa: espero dezagun aurrerantzean
ere lan dezenterik ematea kritikariei...

Eta bi anaia-arrebon pinturari dagokionez,
guztiz aplika geniezaioke Goetheren esaldi hura,
*"Artea sentimenduari eta pentsamenduari forma
ematea da"*, horixe bera antzeman baitakieke bai
bataren obrari bai bestearenari... bakoitzaren
pentsamendu-sentimenduak beren lanetan hezur-
mamitzen direla. Horregatik beragatik baitira bata-
ren nola bestearen artelanak hain propioak, hain
berek eta hain bereziak... beste margolari guztien
lanekin konparatuta, hain desberdinak eta nahastezi-
nak. Eta azken ohartxo bat, deigarria ere gerta daki-
gukeena: bata zein besteak bat egin ohi dute gaur
egungo artistengan hain ohikoa ez den teknikarekin
—grabatuarekin—, biak burutu baitituzte hainbat
obra teknika tradizional honen bidez. Ez alferrik,
etxean bertan baitzuten maisurik onena: Antonio
bera, beren aita; baita beren artelanak gauzatzeko
tresnarik baliagarriena ere: aitaren torkulua.

Aurpegiz ezagutzen dut, baina, beste anaia-
arrebekin ez bezala, harremanik ez dut izan Car-
losekin —senideetan hirugarrena—. Elixabete
Garmendia kazetariaren bitartez jakin dut —*Berria*,
2015.01.28a— lankide izan zirela biok *Zeruko Argia*
astekarian, 1978. urtean-edo (maketatzailea zen
orduan Carlos), eta haren bidez jakin dut, orobat,
nola eraman zituen Carlosek Ayalde etxea ezagutzera
bai Elixabete bera eta bai beste bi kide ere, Joseba
Sarrionandia hauen artean; hona hemen, berriz, nola
amaitzen duen kazetariak artikulua: *"Iluntze hartan
ibar isilak Ayalde sortzailea zuen hizpide*.

Berdin esan dezaket haien amaz, ez bainuen aurpegiz baizik ezagutu Maria Dolores, zoritxarrez. Hala ere, hara zeinen hitz goxoz oroitzen eta goraipatzen duen Manuel Lekuonak (1894-1987) —artean euskaltzain buru zenak— Antonioren emaztea, *Ibar ixillean* liburuaren hitzaurrean —6. orrialdean—, senarraren euskalduntze lanean izandako esku hartzeagatik: “*Emaztea izan bait du Ayalde’k bere bigarren —lenengo?— Irakasle, euskal-ikasbidean, euskal-katiximan.*”

Baten batek, honezkero, galdetuko zion bere buruari ea nola, ‘*Ayalderen*’ inguruko idazlan batean, hain tarte zabala eskaintzen diodan haren seme-alabei buruzko argibideak emateari. Erantzungo diot esanez, seme-alabez ari garen bakoitzean, haien gurasoez ere ari garela zuzen-zuzenean; ‘*Ayalderen*’ familiaz mintzo garenean, ‘*Ayaldez*’ ere mintzo garela, alegia, inongo zalantzarik gabe... Eta aita harro izango dela —nola ez!—, bere kimuen ibilbideaz...



María Dolores, 1942. Olioa, tablexean. 33x40,5 zm. Valverde Lamsfus sendia.

Ez da lehenengo aldia Antonio Valverderen pinturaren inguruan idazten dudana, hainbat alditan idatzi izan baitut hari buruz *Oiartzun* urtekarian, 1986 urtetik aurrera. Idazki horiez gain, era berezian gogoratzen dut idaztea egokitu zitzaidan beste testu bat: 2007ko Xanistebanetan, Oiartzungo Udal Areto Nagusian, egindako pintura erakusketa katalogorako idatzitako testua, *Antonio Valverde Ayalde, bere ‘Ibar ixillean’* izenburupean.

Eta hari buruz hainbat bider idatzi izanak gauzak errepikatzen banarama ere —nahitaez—, errepikatze hori, hala ere, gauza ona dela uste dut: atzera egitera behartzen gaituen seinale, artistaren arrastoen bila. Dena den, orain arte ‘*Ayalderen*’ margolaritzaren inguruan aritu izan naizenez gehienbat, oraingo honetan haren idazlanei lehenatasuna ematea pentsatu dut.

Idazlanak

Horretarako, ‘*Ayaldek*’ idatzitako bi liburuak irakurtzeari ekin diot, gozamen handiz. Lehenik eta behin, baina, kronologikoki bigarren idatzi zuenaz mintzatuko naiz —*Ibar ixillean* du izenburu (Euskaletzeraren Adiskideen Elkartearen eta Aurrezki Kutxa Municipalaren S. G. de E. y P.; 1970), eta euskaraz idatzi zuen—. Ondoren, *Con fondo de txistu* izango dut hizpide, gaztelaniaz idatzitakoa (Añamendi Argitaletxea; 1965). Albo-oharrak hartuz eta testua azpimarratuz joan naiz, bi liburuak astiro-astiro leitzen nituen bitartean; ohar horiek lagungarri, saiatuko naiz labur-labur bi liburuek iradoki didatena agertzen. Bai liburu batetik bai bestetik, banituen hainbat atalburu lehendik irakurriak; orain, berriz, osorik irakurri ditut, hasi eta buka.

Idazkerari buruz, hauxe dio M. Lekuonak arestian aipatu hitzaurrean (7. o.): “*Estilo berria; bañan, ala berean, argia. Berria azalez, estilo laburra, ritmo ondo-neurtu batean. Bañan estilo argia benetan. Estilista fiña degu Ayalde.*” Guztiz bat nator maisu eta lagun izan nuen apaiz oiartzuarrekin. Berdin esan dezakegu, nire ustez, gaztelaniazko —bere ama hizkuntza zenaren— idazkeraz ere: niri, inor aipatzearen, Azorin-en (1873-1967) estiloa oroitarazten dit. Alakantarra prosa berri eta pertsonal baten sortzailea da, edo halakotzat jotzen da, guzen ñabardura ia hautemanezinenak ere zehatz-mehatz atzematen saiatzen zena, oratoria

periodo zein perpaus hanpatuetatik ihes. *“Primores de lo vulgar”* (*“Arruntasunaren lilura”* gisa-edo itzul genezake) deitu izan zion Ortega y Gasset-ek Azorin-en idazkerari. *“El escritor del punto y la coma”* ere izendatu zuten, gorazarreko zentzuan... baita gutxiespenekoan ere hainbat gaitzeslek. So-egile argi eta zehatza, oharmen handikoa; iraganaren birsortzaile zintzoa; bere garaiko behatzaile arduratsua eta egunerokotasunaren lekuko fina. Eta bertako zein kanpoko kolore-usain-zapore mehenen eta soinurik leunen dastatzaile sentibera. Bada, esan bezala, nik ere *azorindar* estiloaren antzeko balioak antzematen dizkiot *‘Ayalderen’* idazkerari... *“A mí me gusta escribir sencillo y claro. Me esfuerzo en que el lector me entienda.”*, halaxe zioen gure idazleak Oteizari erdarazko liburuan (149. o.), azaldu dudana iritzia berretsiz.

Eta *“esatekoari buruz, edo gaiari buruz”*, hona hemen zer dioskun Lekuona zaharrak (7. o.): *“Idazten badu, zerbait esangarri esateko izango da. Euskeraren gaurko egoera ez bada, gure paisajea izango da; paisajea ez bada, artea; artea ez bada, beste zerbait, bañan beti ere «zerbait», eta «zerbait gure».”* Eta *«beste zerbait»... «zerbait gure»* horretan lehen mailako lekua hartzen dute pertsonaiek, bai euskarazko liburuan nola gaztelerazkoan. Euskaldunak eta atzerritarrak: Lizardi, Mitxelena, Oteiza, Aita Donostia, Pio eta Ricardo Baroja anaiak, Xenpelar herritarra, Pello Errota, Juan Kruz Zapiain, Basarri, Regoyos, Guridi, Orixe (bi liburuetan azken hirurok), Picasso... Maitasun eta begikotasun handiz mintzo da guztiez (ezagutu zituenez batik bat, hurbiltasunagatik); Gipuzkoako pertsonaia historikoen harako galeria hura margoz hezurmamitu zuenaren antzera, erretratatu ditu lumaz pertsonaiok, leuntasunez eta zentzu handiz.

«Danetik» izenburuko atal nagusian, ‘denetik’ dator, jakina, hitzak berak dioten bezala. Eta nire ohar guztiak hona ekartzerik ezinezkoa zaidanez, ale batzuk baino ez ditut agertuko. Hasiera-hasieratik (idazlearen *«aintzin-solas»* ataletik, 12-13. o.) atentzioa eman didana garai hartako *«h-aren»* auziaren inguruko jarrera izan da: zein jarrera aurrerakoa euskaldun berriarena, buruargitasunez betea...!, batez ere, beste askok, intelektualak barne, izan zutenarekin alderatzen badugu. Alde ederra... *“Euskel-Idazkaritza-ren oarrak artu nituen ezkeroztik H onhartu nuen, eta H sartzen dut nere idazti geienetan. Bañan... gaizki sartzen dut*

letra hori, horaindik legeak ez ditut ongi ikasi. Eta geiago ere esango dizuet: egoki-egoki H erabiltzen duen idazlerik ez dut horaindik ezagutzen. Huskeri horrengatik, gañera, euskaltzaleen artean gerra zibil ero bat sortzeko arriskuan gaude.” *«Gerra zibil ero bat»*, benetan hitz gogorrak, bortitzak hauexek. Horrengatik dio, haserre, lehentxeago: *“Alperrikako eztabaida honek, H-arenak, nazkatuta nauka.”* (12-13. o.). Duela mende Erdiko kontuak hauexek, ez pentsa hain aspaldikoak ere...!

Mirestekoa, halaber, euskarari adierazten dion maitasuna: *“Bañan orain, eta oraindik, bizi geranok alegiñak egin bear ditugu gure izkuntza eriotzaren atzaparretatik salbatzeko.”* (60. o.), adibide bakarra azaltzearren. Eta mingarria euskararen galtzeak sortarazten dion nahigabea:

“...euskeraren osasunaz kexkatu nintzen pixkat. Auxe baita edozein euskeltzale zintzoaren betebearra. Nola dago euskera Huizin? Itz gutxitan esango dizuet. Zar eta gazteak, euskaldunak. Aurrak, ordea, ez. (...) Pilota-lekuan euskeraz ari ziran mutil batzueri, elizatik ateratako apaiz gazte batek erderaz itzegin zien. Badakit garrantzi aundirik ez duela, bañan neri susmo txarra eman zidan”.

Arte plastikoari buruz ere —hain jantzia zen gaiaz— orrialde ederrak utzi zizkigun *‘Ayaldek’*: *«Danetik»* atalburuaren barnean, *«Pablo Picasso»* (106-109. o.); *«Itzaldiak»* izenekoaren barnean, *«Realismoa, impresionismoa, Darío de Regoyos»* (157-175. o.), eta *«Euskel-eskolari buruz»* (176-191. o.): hitzaldi argigarriak hirurok, zinez... honako hauek ere argigarriak diren bezala: *«Figuras»* atalburuan, *‘Irún: Regoyos, Oteiza’* (148-152. o.), edota *‘Ricardo Baroja’* (153-156. o.)³.

3. Halaxe nioen 2007ko erakusketako katalogoan: *“Badut oroipen gehiago ere. Beste batean, Ayalderen hitzaldi batera eraman ninduen aitak. Diputazioko goi-liburute-gian izan zen, oker ez banago, Urkixo Mintegian, 1959. urtean, datuek diotenaren arabera: hogeira iritsi gabea nintzen artean, beraz. Gaia, euskaraz, Regoyos-i buruzkoa, gero, 1960an, EGAN aldizkariak argitaratu zuena —baita Zeruko Argiak ere, gehitzen dut orain, 1980-04-06an, 871 zbk. (32-34. o.)—.* *Ni nintzen gaztetxo jakin-minarentzat, mintzaldi huraxe izan zen —inpresionismoaren eta pintura-mugimendu honek geroago gure pinturan izan zuen eraginaren ingurukoa— jaso nuen bene-benetako lehen pintura-ikastaroa”.*

M. Lekuonak esplizituki izendaturiko gaiez gain (euskara, paisaia, artea...), askozaz gai gehiago ere jorratu zituen *'Ayaldek'*, «beste zerbait»... «*zerbait gure*» zaku zabal horretan gorderik daudenak: lanbide eta ofiz ioak (artzaintza: «*Artzaingoa Oyartzun-en*», 17-21. o.; meatze lanak: «*Arditurri meatzetan*», 31-37. o.; nekazaritza... —“*Agrikulturaren malda-beera tristegarria!*”, arranguraz zioen 56. orrialdean—); ohitura zaharren galera (“...oitura zarren galtzea...”, 57. o.); erlijioa («*Meza berria*», 22-23. o.; «*Erljioa eta kanta berriak*», 110-113. o.; edota, erdaraz, «*Misa mayor en el pueblo*», 20-23. o.); jaiak eta festak; jolas- joko eta apustuak; gai sozialak («*Kanpotarrak*», 47-52. o.; «*Erri illak*», 53-57. o.); gerra kontuak («*Arrats gorri*», 65-73. o.; «*Arantzazu-erreketa*», 74-77. o.); bidaiak («*Irundik joan eta Irun-era etorri*», 78-83. o.); kultura herrikoa (Olentzero, txistulariak, organoa...); aipaturiko pertsonaiak... Pasadizo eta anekdota ugariz jositako testuak, gainera, ia denak. «Danetik» idatzi zuen idazle eta margolari errenteriarak, zer gai ez zuen, bada, jorratu gabe utziko...? Eta gai hauek guztiez gainera, sormen lanari ere utzi zion bere lekua, nola hitz lauz hala olertiz: lau ipuin («*Ipuiak*», 127-153. o.) eta hamabi olerki («*Olerkiak*», 219-236. o.), irudimenez beteak. “*Olerki berri, bai mamiz, bai azalez. Bakoitza bere arian, egoki. (...) Pintore... bai akuarela: akuarela fin, garden, garbi ditu baita bere olerkiak ere.*”, dio M. Lekuonak «itz-aurrean» (7-8. o.).

Eta testuen edertasuna are eta ederrago egi- ten zaigu egileak berak eraturako ilustrazio xarmagarrien bitartez, zeinek, azalak ez ezik, liburuen orrialdeak ere apaintzen baitituzte, orrialde asko eta asko, atalez atal.

Gauza ugari bi liburuetan: «metafora eder... ausarta»; «ironia»; «umorea»; «ironia/umore fina»; «euskara» (behin eta bider...); «batua»; «poetiko»; «lirikoa»; «fina»; «apaina»; «konparazio dotorea»; «zertzelada bitxi»; «harribitxia»; «gaurkotasun osoa... handia»; «sinbolismoa, margo-lumaz» («*Gaba*» olerkia, 222. o.); «Antton...» («*Utsa*» eta «*Hura*» olerkiak, 228/236. o.); «azorindarra»; «inpresionista»... Azpimarrak eta bestelako ikur/ zeinu/zirimarrak, ezin konta ahalekoak...

Hitz batean, kaleidoskopikotzat jo ditzakegu haren idazlanak, etimologia-zentzu hertsienean («*kalós*», eder; «*éidos*», irudi; «*scopéo*», behatu,

ohartu): argialdi aipagarri baten eraginez sortu diren irudi-imajina ederrak baitira *'Ayaldek'* oparitu zizkigunak, bai hitzez bai margoz...

Bi liburuok, segidan, *'Ayalderen'* erakusketen katalogoak berrikustera bultzatu naute, ezinbestean... *'Ayalderen'* liburuen irakurraldiak, berriz, bere belaunaldiko hainbat idazle lagunaren liburuetara eraman naute, halako eran, non Artetxe, Pelay Orozco eta Oteizaren idazlanak, besteak beste, *'Ayalderen'* testuinguru historikoa hobeto eza- gutzeko jakin-minaren pizgarri izan baitzaizkit. Eta horrek guztiak, jakina, hainbat margolari adinkide- ren inguruko monografiak berrirakurtzera bultzatu nau: Agustin Ansa, Simon Arrieta, Nikolas Lekuona, Ignacio Echandi, M^a Paz Jiménez, Luis Alvarez, Jesus Olasagasti, Juan Cabanas, Carlos Ribera, Narkis Balenziaga, Gaspar M. Iturrioz, M. Flores Kape- rotxipi... baita lehentxeagokoak ere: Ascensio Mar- tiarena (*'Ayalderen'* maisua), Elias Salaberria, Julian Tellaetxe, B. Bienabe Artia, Dioniso Azkue *'Dunixi'*, Vicente Berrueta, Eugenio Arruti, Jacinto Olabe, Ricardo Baroja, Ignacio Zuloaga, Pablo Uranga...⁴

Honetara ezker, bazterrera utzi behar izan ditut hainbat eta hainbat ohar... beste baterako utzi beharrekoak, ezinbestean. Hala biz.



Azken puntu gisa, hauxe aipatuko nuke: Antonio Valverde *'Ayalderen'* jaiotzaren men- deurrena dela-eta, zer egin haren omenez? Pro- posatzen eta guztiz gomendatzen dizuedana neronek egindakoa da: hartu bere bi liburuak eta bata bestearen ondoren irakurri... horixe baita, nik uste, *'Ayalde'* biziki estimatzen dugunok egin diezaiokegun omenaldirik onena; eta gozatu bere artelanez eskura ditugun erakusketa-katalogoen bidez (Aurrezki K. Muzizipalarena —antologikoa—, 1974; Donostiako S. Telmo Museoarena —dene- tan osoena—, 2004; Galeria M. Mejutorena, 2005; Zarauzko Udalarena —*Obra grafikoa*—, 2006-2007; eta Oiartzungo Udalarena, 2007), edota internet bidez.

4. Liburuxka gehienak Aurrezki K. Muzizipalaren ezinbesteko bilduman argitaratuak, zeinari, Antonio Valverde *'Ayalderi'* eskainitako monografiak ematen zion hasiera, 1974an...

Ni ere neure omenalditxo eskaintzen saiatu naiz lerro hauen bidez, 'Ayalde' ospetsua gogoan, bere jaiotzaren mendeurrenean, ez lan akademiko dotore bat burutzeko asmoz, baizik eta haurtzarotik eta bihotz-bihotzetik bizi izanak gogora ekarri nahian... Hauxe, bada, nire ekarpen txoa 'Ayalderekin' mendeurrenean, atsegin handiz egin dudana⁵.

Oiartzunen 'Ayalderekin' harreman handia izan zutenetik, Adolfo Leibar izango da agian bizirik geratzen den bakarrenetakoa, bakarra ez bada: 92 urteko adiskide mina arrasatearra da sortzez, nahiz eta gero Erreterian ere bizi izan zen, orain Oiartzunen, 'Ayalde' bera bezala... Bada, egun batean harengana hurbildu eta zera galdetu nion, ea nola erretratatu zukeen artista laguna, bi pintzeladaz. Eta berak bere denbora hartu, eta hauxe erantzun zidan: «gizon polifazetikoa»; «fina»; «sentiberatasun handiko artista»; «hitzegile eta entzule aparta»; «eskuzabala»... eta hitz batez —eta oroz gain—, «gizon zintzoa» (erdarazko «*hombre de pro*» hitzak erabili zituen hori adierazteko).

Bukatzeko, 2007ko erakusketa-katalogoan erabilitako azken hitzak erabiliko ditut. Halaxe nioen orduan, eta halaxe diot orain ere:

“Lehendikan ere idatzita neuzkan mirespen hitzekin (Oiartzun 2004) amaituko dut: «Egunero-egunero dut Ayalde gogoan —Aialde gizon eta Ayalde artista—, Ergoiengo bideak soseguzko ibar ixillean daukadan estudiara naramanean. Han, lanlekuaren baitan, egunero-egunero argi-itzal sorginduen ofizioa lumaz eta pintzelez ofiziatuz, maisuaren argi-itzal meheak ditut gogoan...

Aialdeko gaina dut lekuko, ibar isilaren bakardadean.»”.



Antonio Valverde Lamsfus, 1953. Olioa, mihisean. 73x60,5 zm. Valverde Lamsfus sendia.

5. Egia esan, margolaritzari ekin nioenetik, etengabeko gorazarrea izan da erreteriarri egin izan diodana: nire etxeko paretetan zein estudiokoetan zintzilik daude haren zenbait margolan, nik neure eskuz eginak, baita erreprodukzio banaka batzuk eta hari buruzko egutegiak ere, neure eta neure etxekoekin bizi-goagarri ditudanak.

Recordando a Antxon Aguirre Sorondo (1946-2014)

Ramón Ayerza



Antxon, joven antropólogo, en el despacho de su casa.

Antxon Aguirre Sorondo, antropólogo, viajero, historiador, porcelanista, perito, polígrafo, falleció el 30 de enero de 2014. Tuvo una vida dedicada a saciar su inmensa curiosidad, cosa que hizo con apasionada dedicación, medios económicos cicateramente regateados y desbordante generosidad. Tal suele suceder a los insensatos que, en este país, desoyen los consejos de sus mayores y se dedican a algo tan ingrato como la cultura.

